

Sega, mondeju eta festa Zaldibian



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA



TXINDOKI

LOGOS altzarien banatzaile ofiziala

Sukalde eta bainuko altzariak

J. M. Iturrioz, z/g (Matadero parean)
BEASAIN 88 03 98

Argitarapen honen edizioa segurtasun...

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre
Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba
Telleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
rre eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Aitor Arrue, Jo-
sune Amondarain, Urko Irastor-
za, Koldo Urrestarazu, Aitziber
Murua, Josune Aldabe, Gabino
Murua, Edurne Albizu, Xabier
Mendiguren, Miren Etxezarreta
eta Gure Eskuetan.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Moda desfilea eta Ileapaintze
lehiaketa Ordizian**

Ordiziako Majori kirolde-
gia modaren kokalekua
izan zen joan zen asteburu
osoan. 'Ordizian' Ord-
ziako merkatarien elkarte-
ak antolaturik, III. Moda
desfilea eta II. Ileapaintze
lehiaketa izan ziren. Lema
zera zen: "Zer izango li-
tzateke moda Ordiziarik
gabe!". Arrakastatsua
izan zen moda egun hau,
antolatzaileen esanetan
4.000 bat lagun izan ziren
bertan.

15 modelo profesione-
lek erakutsi zituzten aur-
tengo udazken-negurako
Ordiziako dendeak es-
kaintzen dutena, jantzi,
oinetako, lentzeria, poltsa
eta osagarrietan. Haurrek
ere beraien tarte izan zu-
ten; modelo lanetan be-
raien lehen urratsak eman
zituzten.

Igandeko saiora Ines
Sainz, Miss Espainia, eto-

rri zen. "Ezusteko atsegi-
na eraman" omen zuen
Ordizian ikusitakoarekin.

Ileapaintzaileek igande
goizean izan zuten lehia-
keta. Ileapaintzaile gazte-
ek hartu zuten parte. Ira-
bazlea Lasarteko David
Barbé izan zen. 25.000
pezetako saria jaso zuen.
Hirugarrena izan zen Gu-
rutze Blanco ordiziarra.
Josune Gonzalez ordizia-
rrak ere parte hartu zuen
lehiaketan. Guztiek ere,
Ordiziako lehiaketa aurre-
ra egiteko tranpolin ego-
kia dela azpimarratu zu-
ten.

1996ko martxoan egin
zuen gala handia Ordizia-
nek. Eskaintzen dutenaren
standek hartu zuten or-
duan lekuri handiena.
Datorren urteko martxoan
ere beste hainbeste egite-
ko asmoa dute ordizia-
rrek.

BOTA BERTSOA



Alaitz Sarasola

Ametsetako bidaia

Doinua: Betroiarena

'Bidaia'tzea nora
joango zinateke?'
aukeratzeko zaila
jarri didate
baina besteetatik
bat badet aparte:
nahiz distantzia baden
Kubara bitarte
hantxe hilabete
egongo nintzake
ezagutu arte
zeinentzako kalte?
mutil zaharrek bakarrik
ez dute maite.

Kuban ditut begiak
aspaldi jarriak
nahiz jasan injustizi
izugarriak
kubatar ezpainetan
hor dirau irriak
gehio balio baitu
euren aberriak
nekatuz gerriak
elkarlan urriak
ditu igarriak
bultzada berriak
zer ikasia badu
Euskal Herriak.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ataungo Lareon txabola turistikoa?

Irailaren 11ko arratsaldeko 7.30etan udaletxeko deialdira joatea erabaki nuen. Deialdia Aralarko Lareo urtegiaren inguruan enpresa pribatu batek eraikuntza turistikoa baten proiektuaren berri ematea zen. Bertan, alkatea, bi zinegotzi eta enpresa pribatuko hiru lagun alde batetik, zein bestean zientio erdi bat, gutxi gora-behera, entzule.

Alkateak proiektorea medio aurkeztu zituen eraiki nahi diren txabolen kokapena nahiz egiturak. Badirudi, urtegi alboko pagadian 50ren bat egurrezko txabola eraiki nahi dituztela, harrera etxea, igerilekua eta bi frontoi.

Ataun biztanlez beheraka omen doa eta nolabait ere hori konpondu edo herriari indarra emango dion proiektua omen.

Alkatearen hitzetan zera zen informazioaren helburua: herriarrek irailaren 27rako proiektuari buruzko iritzia udaletxera igortzea, nahiz eta egun horretatik aurrera udaletxea eta berau osatzen dutenen eskuetan geldituko litzatekeen erantzuna.

Ondoren jendearen iritzietara pasa zen jardunaldia. Bertako zenbait partaidek informazioa ontzat eman eta aldi berean zera eskatu zuten: ingurugiroa, baliabide ekonomikoak, bertaratzeko bideak, lanpostuak eta abarren txostenak. Behin txosten hoiek eskuartean zizutenean berriro deialdia luzatu eta herriarrek jakintza gehiago duela, proiektua arrazoitze-ko.

Gehienetan alkateak berak erantzun zituen jende arteko galderak, beti ere proiektua defendatuz. Hala ta guztiz, zerak eman zidan amorrurik haundiena, falta diren txosten tekniko guztien berri herriak

izango duela baina erabakia hilaren 27az geroztik udaletxearen esku izango dela.

Orain arte nahiko eszeptiko bagara udaletxeko arduradunen jarreraz, hau dena entzunda nola bestela? Herriarren argudio horiek hilaren 27rako nahi dituzue, zertarako? Zuen esku badago proiektuaren baietza edo ezetza, zertarako nahi dituzue herriarren iritzia? Beraien erantzunak aurrez jakinda egoteko soilik? Benetako Herrigintzatik urruti zaudete.

Nire iritzi pertsonala publikoki luzatuko dizuet: ez dut nahi gure Amazonia (Aralar) hondaturik, eta gutxiago kanpokoen aberaste-ko.

*Nekane Urdangarin
Begiristain (Ataun)*

Ordiziako PNV-ER-PSOeri erantzunez

Larunbata gaueko gerta-kizunei buruz, gure erantzun publikoa eskatzen duzuenek, hainbat puntu argitzen saiatuko gara.

1.- Harrigarria iruditzen zaigu zuen eskakizuna. Herri Batasuna zokoratzen eta isiltzen saiatu eta saiatzen zerate eta orain gure iritzia jakin nahi duzue. Udaleko Gobernu Batzordetik bota gaituzue eta Batzorde guztitako burutza kendu. Guk zuei eskatutako bilerei uko egin diozue eta horrelako gertakizunen arduraz zuzena Herri Batasunari leporatzen saiatu zerate, P.P.k markatzen dizuen ildoak jarraituz, nahiz eta jakin bada-kizuen guk ez dugula inolako ardurarik.

2.- Herri Batasunak inoiz ez ditu horrelako ekintzak bultzatu eta txalotu, salatu ere egin ez dituen bezalaxe. Oso erraza baita, komunikabide guztien babes ofiziala

jasoz, salaketa publikoak egi-tea, norberaren erantzukizun politikoa zuzitzeko asmoz. Askotan esan dugu, bide hori ahitua dagoela. Hemen neurri zehatz eta demokratikoa behar ditugu, behin betirako soluziobideak gertatuko direnak, horrelako sufrimendua-rekin amaitzeko. Aginte politikoa "Hirukoa" osatzen du-zuenak zuen esku duzuenek, ardura politikoa zuena da eta bada garaia euskal gizartea asaldatzen duten hainbat arazoei konponbideak eskaintzeko. Hala nola, gaztediaren kriminalizazioa eta arazoei konponbideak eskaintzeko. Hala nola, gaztediaren kriminalizazioaren eta errepresioaren hedadura itzela, ehundaka gazte atxilotuaz; presoekiko errepresioaren hedadura itzela, ehundaka gazte atxilotuaz; presoekiko sakabanatze politika ezlegal eta lotsagarria eta errefuxiatuen entrega ezlegalak; gazteek pairatzen dituzten lan baldintza eskasak; Euskal Herriaren auto-determinazio eskubidea babestuko duen marko legala-ren ukapena; etab.

3.- Dagoen bide bakarra, elkarrizketa eta negoziazioa da. Hor dago gakoa. Zuek "demokrata" autoizendatzen zaretonok aspaldian utzi du-zuen bidea, errepresioari hel-duz, hain zuzen ere. Bestela, nola ulertu zuen isiltasuna Herri Batasunaren Mahai Na-zional osoa epaitegiratzeko-an bake proposamena zabaltzeagatik? Nork mantentzen du espetxe politika ezlegala? Hau al da bakea lortzeko bi-dea? Nork ematen dio babesa P.P.ri errepresio espiral hone-tan? Nork gobernatzeko du "GAL"ekoekin Gasteizen eta Ordizian? Herri demokrate-tan ez da horrelakorik gerta-tzen eta arazoak, Irlanda ere-du, negoziatuz konpontzen dira. Eta zer negoziatu ere badugu. Hor daukagu "Alter-

natiba Demokratikoa", giza eskubide unibertsalen eska-kizunean oinarritzen dena. Hori da, ikur zuriz datorren alde baten eskakizun argi eta garbia. Oraindik, tamalez, beste aldeak, proiektu espai-nolak, zuen laguntzaz, zer eskaintzen digun ez dakigu, kiratsa urrutitik hartzen ba-diogu ere.

4.- Azkenik, zuen eta zuen komunikabideen jarrera ma-nipulatu eta gezurtia sala-tu nahi dugu. Besteak beste, Eliza eta "Pottoka" erretzeko ahalegina aipatu duzue dena gezurra zela jakinda. Dago-neko erretoreak eta taberna-ren jabeak gezurtatu dute ho-ri horrela izan zenik. Baita ere salatzen ditugu, egun be-rean gure zenbait kidek ja-sandako erasoak, "bakezale" deklaratzeko direnen aldetik.

Ordiziako Herri Batasuna

Irlandan bai eta hemen ez?!

Errepresioari Nahikoa da! esan eta irtenbide politiko el-karrizketatua nahi dut. Eus-kal Herriarentzat askatasuna.

*Joxepa Madariaga
(Lazkao)*

Ni ere errudun

Nik ere presoak aske nahi di-tut.

Nik ere Euskal Herri eus-kalduna nahi dut.

Nik ere Euskal Herri as-kea nahi dut.

Nik ere bakea nahi dut.

Askatasuna eta Bakea nahi ditut, Askatasuna eta Bakea zor zaizkit.

Baina, "si vis pacem, para bellum" (bakea nahi badun/k, hago prest gerrarako). Ez da nik asmatua, erromatarrek aspaldi bota zuten.

*Karlos Arizabaleta
(Lazkao)*

TXANDAKA

Ordizia super-euskalduna



Oraingoan ere bete digute buzoia paperez, Pryca ez bada Eroski, edo bestela Euskaltegian izena emateko deiak, beharra ere badago-eta, noski. Ordizian ez ordea!

Garai batean Billafranka deitzen genion inguruotako ezjakinok. Geroztik ederki ilustratu gara halere, ikasi dugu Ordizia esaten, eta, izenak izana berarekin dakarrelakoan-edo, herri osoa euskaldun bihurtu digute bat-batean. Euskaldun baino gehiago, super-euskaldun esango nuke nik.

Hau nola den galdetzen didazue? Hara: lehen bazen Ordizian Udal Euskaltegi bat, euskara ikasi edo alfabetatu nahi zuten herritarrei zerbitzua eskaintzen ziena. Baina, horra non alkateak erabaki duen ixtea. Arrazoia? Beharrik ez dagoela.

Jakina ba! Bederatzi mila ordiziarrek primeran hitz egiten dute euskaraz. Hitz egin esan al dut? Idatzi ere Euskaltzaindiakoek baino hobeto. Eta lantegietan ere euskara hutsez egiten dira bai kontabilitatea, bai barne-oharrak edo etiketajea.

Ai, denok ordiziarren pareko bagina... Juanbiri galdetu beharko diogu, nola lortu duen.

Xabier Mendiquiren Elizegi

Segurak beharrezkoa al du saihezbidea?



Josune Telleria

21 urte, ikaslea
segurarra

Beharra badago. Atasko handiak sortzen dira, kamioiak gora eta behera, gainera herriaren erdi-erdian.

Joxe Kruz Intxausti

43 urte, gidaria
segurarra

Saihezbidea egitea ondo dago, baina nondik egin behar den ondo begiratuta. Oraingo proiektuarekin, Madalena aldean, bidea etxeko atariraino sartzen zaio zenbaiti.



Joxe Ariztimuño

60 urte, erretiratu
segurarra

Beharra bai, badago. Dagoen proiektua ez zait txarra iruditzen, baina badakit baserriarrak haserre daudela.



Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN



ESTETIKA ZENTRUA

✓ Aurpegia gaztetzea

✓ Automasaje
ikastaroak

✓ Depilazioa

✓ Tratamendu mediku
estetikoak

KONTSULTA EZAZU

Senpere Merkatal Gunea ☎ 88 15 50 BEASAIN



Zaldizurreta kalea

☎ 88 45 06

BEASAIN

ZINEA

GOIENIZ:

'Lone Star'. Urriak 9, 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Un mundo perdido'. Ostirala 3: 22:15.

'Adicto al amor'. Larunbata 4: 19:30 - 22:15; igandea 5: 16:45 - 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Tocando el viento'. Ostirala 3: 22:15; larunbata 4: 19:30 - 22:15; igandea 5: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 6: 19:30.

'Turbo Power Rangers'. Igandea 5: 16:45.

'Volcano'. Ostirala 10: 22:15; larunbata 11: 19:30 - 22:15; igandea 12: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 13: 19:30.



'Lone Star'

John Sayles (EEBB, 1996) Sheriff bat agertzen da eta Texasen kokatuta dago, baina ez da oesteko filmea. Hezurretan dagoen gorpu baten aurkikuntzak —sheriffaren izartxo albano— polizia ikerketa martxan jartzen badu ere, ez da 'thriller' bat; eta amodiozko pasarteak izan arren istorio erromantikoa denik ezin esan.

'Lone Star' filmean John Sayles saiatzen da gizakien arteko harremanetan oztupo ugari agerian uzten, egia bidea proposatuz hauek gainditzeko, gezurrak edo ekimen kementsuak baztertuz.

Gidoilan trebea eta jarre- antirrazista lagun, azkenaldian zinema amerikarrak sortutako lanik orijinalenetako baten aurrean gaude, Saylesen ibilbidean ('Itsastaxakurren irlaren sekretua', 'Pasion fish'...) beste pauso sendo bat.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Urriak 15, 'Zer ahoratzen dugu? Elikadura' hitzaldia Ane Miren Urangaren eskutik, Udaletxeko Batzar Areatoan, Udal Euskaltegiak antolatuta.

LAZKAO:

Urriak 7, 'Euskal Herriko itsaslabarrak: iragana ikusteko leihoa'. Hitzaldia. Maizpide euskaltegian, 21:00etan.

Urriak 15, 'Euskal Herriko mitoak', Patxi Sanzen eskutik, 21:00etan, Maizpiden.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urriaren 10era arte, Mare Arrizurietaen eskultura erakusketa, Aterpe Tabernan.

Urriak 11, Izaskun Ruiz de Gaunaren erakusketa Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Urriaren 10era bitartean, Enrike Otxotorenaren akua-rela erakusketa, Barrenan.

MUSIKA

ORMAIZTEGI:

Urriak 3, Asmo txarrak eta Enbor talde ondarrutarren rock kontzertua, Itxune tabernan, 22:30etan.

Urriak 10, Moho Lizarrako taldearen kontzertua: rock & rolla, Itxune tabernan, 22:30etan.

IRTEERAK

Ataungo zikloturistak:

Urriak 5, Ataun-Asteasu. 65 km.

Urriak 12, Ataun-Etxarri-Altasu. 62 km.

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 5, Kilometroak 97ra, Lezora.

Urriak 12, Helduen martxara.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 5, Hondarribia-Jaizkibel-Lezo.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

Olaberriako IV. Argazki Rallya

Urriaren 12an egingo da aurtengo argazki rallya Olaberrian. Goizeko 8.00etatik 10.30etara banatuko dira karreteak Kultur Etxean. Izena egun berean eman beharko da eta gaia ere orduan azalduko da. Partaide bakoitzak 1.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Modalitatea: 35 mm.ko diapositibak. Sariak: Irabazleak 25.000 pezeta eta trofeoa; bigarrenak 15.000 eta trofeoa; eta hirugarrenak 10.000 pezeta eta trofeoa. Herriko saria 10.000 pezeta.

Joga ikastaroa

Martxan jarri dira berriro ere Joga saioak Ordiziako Barrena Kultur Etxean. Asteartero eta ostegunero izango dira saioak, goizeko 9.30etatik 10.30etara edo iluntzeko 8.00etatik 9.00etara. Hilean 3.000 pezetako kuota ordaindu beharko da. Informazio gehiagorako deitu 889770 (Jose Mari - Mari Jose) telefonora eta eskola ordue-tan pasatu Barrena bertatik.

Bach musikaldia

Bach musikaldiaren barruan honako saio hauek antolatu dira urriaren 16tik 18ra, Ordizian:

Urriak 16: Extramunditaldea, Barrena Kultur Etxean, 19:30etan.

Urriak 17: Marta Almajano (sopranoa) eta Zefiro Ensemblea, Barrenan, 19:30etan.

Urriak 18: Peñaflorida Kapera, Eliz Parrokian, 20:30etan.

Hika-staroa

Lazkaoko Maizpide Euskaltegian eta Goiztiri AEKn Hika lantzeko ikastaroa antolatu da. Datari dagokionean, bi aukera daude: urriaren 23 eta 30ean eta azaroaren 6, 13, 20 eta 27an, iluntzeko 7.00etatik 9.00etara; eta urriaren 18 eta 25ean eta azaroaren 8, 15, 22 eta 29an, goizeko 11.00etatik 1.00era. Matrikularen prezioa 2.500 pezetakoa da. Izena emateko deitu Maizpidera (889231) edo Goiztiri AEKra (88 91 74).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Lazkaon pisua alokatzen da. 18 04 26.

☐ Bilbon, Sarriko ondoan, pisua hartzeko pertsona euskalduna behar da. 80 16 19.

☐ 2 edo 3 neska behar dira Oñatin pisua osatzeko. 889067 (Leire)

Salerosketak:

☐ Ordizian Arantxa taberna traspasatzen da. Bezero ugari, erdialdean kokatua. Deitu 88 72 46 telefonora.

☐ Karrerako txirrindua salgai. 88 51 39.

☐ Beasainen 1961-1963 bitartean atera zen 'Loinaz' aldizkariaren ale hauek erosiko nituzke: 2, 4, 5, 12, 13, 14 eta 15. Asteburuko bazkalondoetan 88 80 68 telefonora hots egin.

Lana:

☐ Esku soinuak konpon-tzen dira. Marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Arratsaldeko 5.00etatik 7.00etara, ostegunetan ezik.

☐ 2 neska euskaldun prest daude zaharrak, haurrak eta minusbaliatuak zaintzeko. Esperientziadunak. 882589.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

Urriak 4-5: Atorrasagasti (Gipuzkoa, 15 - Ordizia).

11-12: Azpilikueta (Nagusia, 18 - Beasain).



Ikastaroak:

Dekorazioa: egurra, alabastrina, erretxina...

Pintura: oihala, metala...

• Esku lanak

• Opariak

© 65 55 77

Nafarroa Etorb. 10
TOLOSA

© 88 40 56

Andra Mari, 5
BEASAIN

OSKARBI OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Jai zoriontsuak denoi!

Kickers

K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA

KALITEA eta PROFESIONALITASUNA

97-98 IKASTURTEA

✓ ESKOLA LAGUNTZA

- ☐ OHO, DBH, LOGSE, UBI, LH, IEE.
- ☐ Banakako atentzioa
- ☐ Talde txikiak

✓ UNIBERTSITATE MAILA

- ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
- ☐ Estatistika
- ☐ Matematika
- ☐ Fisika eta Kimika

HASERA: URRIAK 1

INFORMAZIOA eta MATRIKULA:

16 01 20

Joan Iturrilalde, 5

BEASAIN



Gure Eskuetan
Goierriko Gazte Elkartea

Erredakzioan itzulia

*“‘Ermuako’
izpirituak bizirik
jarraituko du ETak
borroka armatua
uzten duen arte,
noiz Euskal Herria
bakean biziko den
eguna izango den
eta euskal gizartea
errekontziliatu ahal
izango den”*

Orain lasaiago gaudenez, gure inguruan uztailen gertatu zenaz analisi bat egin behar dugu, jendeak errebindikazioak defendatzeko baino, beraien oporrak planifikatzeko erabiltzea ohikoagoa den hilabeteaz. Oraindik ere ezohizkoagoa dena, uztailen euskal gizarteak egindako manifestazioak Euskal Herriko historian egindako biolentziaren aurkako protestarik handiena bezala hartu genezakeen. Baina, zergatik mugitu zen euskal gizartea inoiz ez bezala? Zer izan zen zehazki Ermuan gertatu zena? ‘Ermuako’ izpirituak benetan desagertu al da?

MIGUEL ANGEL BLANCO Garrido bahitua izan zenean euskal herriarrak zein gogo-aldartetan zeuden ausnartzen hasiko gara; horretarako lehenengo ETak egindako azken bahiketek gizartean sortarazi zituen efektuak aztertuko ditugu, baita ere, bahituen askapenak sortu zuen euforia Miguel Angelen bahiketa gertatu aurretik.

532 egunera luzatu zen Jose Antonio Ortega Lararen gati-bualdiari, zeina ETak egindako bahiketarik luzeena den, Jose Maria Aldaia bahitua egon zen denbora gehitzen badiogu, Jose Antoniorenarekin bere agonia banatu behar izan zuena, bi urte baino gehiagoko etengabeko bahiketen zifra beldurgarria lortzen dugu. Bi urte hauetan zehar, ehundaka milaka euskaldunek etengabe bahituen askatasuna exijitu dute, bakearen aldeko manifestazio jendetsuetan parte hartuz, edo talde bakezaleek Euskal Herriko geografia osoan antolatzen zituzten asteroko konzentrazioetan parte hartuz, edota beraien paparretan lazo urdinak eramanez, oihal zati txiki hori Interneten ere zabaldu da eta euskal gizarte guztia gure lurra-arentzat desio berdinean bateratzea lortu du: bakea eta askatasuna.

HALA ERA, euskal gizartearen

‘Ermuako’ izpirituak

gehiengo baten exijentziei entzungor egiten zienekin elkarbizitzeak, bahiketen irtenbideen aurrean herritarren artean inpotentziaren sentimendua eragin zuen, batez ere beraien barruko inpotentzia bahituen askatasuna publikoki exijituz ausartu ez zirenen artean. Zorionez, Jose Antonio Ortega Lara eta Cosme Delclaux Zubiria aske utziak izan ziren egunean, euskal gizartea “askatu” egin zen, era berean, inpotentzia sentimentu guzti honetatik, baina norberak bere barruan gorde beharraz, izan ere Euskal Herriak bizi duen gatazka biolentzia ez zen bukatu ez eta gutxiago ere. Zoritxarrez, Jose Antonio eta Cosmeren askatasunetik 9 egunera, egiaztatu genezake ETak bere proposamenak errebindikatzeko biolentzia erabiltzen jarraitzen duela: Miguel Angel Blanco Garrido bahitzen dute, heriotz zigorrera kondenatzen dute, eta bere exekuzioa bahiketa ondorengo 48 ordura bakarrik iragartzen dute.

HAU GUZTIA ORAINDIK ere euskal gizartea bi bahituen askatasuna ospatzen ari zenean gertatu zen, zeinak jendearen artean beldur izugarria sortzen duen Miguel Angel Jose Antonioren bahiketaren eraginekin ikustea beldur zen, edo odol putzu batean ikustez, beste aldi askotan banda terroristak asasinatutako biktimak ikusi ditugun bezala. Bere heriotza galerazi ahal izateko bi egun besterik ez izateak, euskal herritarren artean angustia sortarazten du, bi urtetako bahiketen bitartean pilatutako inpotentzia amorrua bilakatzen da, amorru horrekin Miguel Angel bizirik aska zezaten jendeak beraien eskuetan zegoen guztia egin zuen. Bere askatasuna eskatzen zuten kontaezinezko manifestazioen artean, Bilbon 12an egindako manifestazioak sortzen du zirrara, 500.000 euskaldunek

baino gehiagok Miguel Angel aske uztea exijitu zuten.

GIZARTEA, orokorrean mobilitatua bazegoen, Ermuako bizilagunak ezohizko moduan haserretu zituen. Beraien bizilaguna bahitu zuten, beraien laguna. Ez zegoen norbaitek manifestazioa konbokatu zain egon beharrik, baizik eta kalera irten eta manifestatu egiten ziren, Miguel Angel bahitu eta lau ordu beranduegira egiten ari ziren jada, eta era iraunkorrean ondorengo bi egunetan egin zuten.

Dudarik gabe Ermuan bake eta askatasun izpirituak zegoen. Baina izpiritu hori ez da Ermuko eta ez da desagertu. Bakearen aldeko manifestazio edota Euskal Herriak bizi duen biolentziarekin zerikusia zuten heriotzengatik protestatzeko talde bakezaleek urte askotan zehar antolatutako konzentrazio ixiletan zegoen izpiritu berbera da. Bake izpiritu hori, (izen bat jartzekotan Ermuak bere herriarena izatea mereziko luke) euskal herritar gehiengoengan dagoena da, ‘Ermuako’ izpirituak ez baita desagertu. Azken aldiz era izugarrian agertu zena irailaren 23an Ordiziako kaleak zeharkatu zituen manifestazioan izan zen, asteburuko txikizioengatik protestan, izan ere izpiritu honek Euskal Herriarentzat etorkizun emankor bat eraikitzeaz euskal gizartea kezkatzen animatzen du eta herri hau suntsitzera dedikatzen diren txoriburuen aurka dago.

GAINERA izpiritu honek bizirik jarraitzen du gure etxeetan, edota kalean gure koadrilekin futbolaz (eta ez dugu ezer honen kontra) geroz eta gutxiago hitz egiten dugun bakoitzean, eta geroz eta gehiago eztabaidatzen dugu neurri handi batean eragiten digunaz, euskal gatazkaz. Eta ‘Ermuako’ izpirituak bizirik jarraituko du ETak borroka armatua uzten duen arte, noiz Euskal Herria bakean biziko den eguna izango den eta euskal gizartea errekontziliatu ahal izango den.

ERREZETA



Arantxa Urteaga
Nazabal erretegia
Zaldibia

TXIPIROIAK PELAIO ERARA

Osagaiak: Txipiroiak, tipula, gatza, oliba-olioa eta ardo txuria.

Kazuela batean tipula egiten jarriko dugu oliotan, ondo egin gabe utziaz.

Beste kazuela batean, txipiroiak, hankaz beteak eta ondo garbituak, su bizian jarri. Kolorea hartzen dutenean tipula nahasiko diogu. Ardo txuria eta gatza ere bai. Su txikian geldi-geldi egiten utziko ditugu, tipula eta txipiroiak ondo egin daitezen. Jateko prest dagoenez, ondo egin digula!



Miren Etxezarreta
Muguet loradenda

Udazkenean eta neguan etxeko barruko kronton eta altzearen adarra loreak nola zaindu eta edertu daitezkeen esango dizuet.

● **Kronton-a:** Orri kolo-
retsuenak dituen lorea da,
udazkenean kolore horixka
granatez hornitzen da. Be-
raz, neguan zenbait orri
erortzen zaizkio. Hori ez
gertatzeko tenperatura ber-
dina behar du, 15-27 gradu
bitartean. Ez du hotzik pa-
satu behar, ez eta korriente-
rik ere.

- **Argitasuna:** Zenbat eta
gehiago izan orrien kolorea
ederragoa izango da.

- **Ureztapena:** Udan astean
bi aldiz eta neguan astean
behin ur epelarekin urezta-
tu.

AHOLKUA

Etxe barruko loreak

- **Ongarritu:** Hazteko ga-
raian ongari likidoz 15
egunez behin.

- **Garbitasuna:** Orriak gar-
bitzeko uretan bustitako
kotoiarekin, banan-bana
garbitu, orriak arnasteko.

- **Ontzi aldaketa:** Apirile-
an edo maiatzean egin be-
har da. Ez jarri ontzi han-
dietan.

● **Altzearen adarra:**
Landare hau oso aproposa
da makramezko lorontzian
zintzilikatzeko, edo baita
kortxoazko trunko batean
sartzeko ere. Epifitoa de-
nez, trunkoaren barnean bi-
zi daiteke.

- **Hazkuntza:** Oso geldia
du, garoa denez ez du loral-
dirik izaten.

- **Argitasuna** oso beharrez-
koa du, baita eguzkia ere.
Itzalean ere oso gustora
egoten da.

- **Ureztapena:** Ureztapen
batetik bestera lehortzen
uztea komeni da. Udan as-
tean behin nahikoa da. Ne-
guan 15 egunean behin.
Ureztapen egokiena pertza

batean sartzea da, behar
duen ura berak har dezan.

- **Temperatura:** Neguan
15° gutxienez eta udan 24°
nahikoa dute.

- **Hezetasuna:** Ihinzatu
astean 2 aldiz, oso gustoko
dute.

- **Garbitasuna:** Berak
duen biloa edo pelusila ez
kendu, oso beharrezkoa du-
te aire lehorra jasateko.

- **Kimaketa:** Ez du beha-
rrezkoa. Orri zaharrak ez
kendu, oso zaharrak ez bal-
din baditu.

- **Ontzi aldaketa:** Beharre-
an baldin badaude edo
trunkoan jartzeko bakarrik
aldatu ontziz. Trunkoak
kortxoazkoa behar du izan.
Egokiena aukeratu eta
puntzoi batekin zulo handi
xamarra egin. Landarea
atera bere lur guztiarekin
kontuz-kontuz. Zainak go-
roldio hezearekin bildu eta
2 alanbre gurutzaturik on-
do lotu. Dena trunkoari zu-
loan lotu, sustrai-lurra he-
zea mantenduz. Noizean
behin ihinzatu.

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



Ettxeko eta sukaldeko altzariak

Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnoa. 65 29 01

IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543 BEASAIN

Irailaren 20ko Ordiziako istiluak

Irailaren 20ko gauerdian bu-
ruea estalita zuten 30 bat
pertsonak hainbat eraso egin
zituzten Ordizian. Barne
Sailaren arabera, erasotzai-
leek zakarrontziak kalean
gurutzatu eta su eman zie-
ten, Mapfre aseguru etxe-
ko bulego batean kalteak eragin
zituzten, San Maria elizak
ere kalteak jasan zituen, IU-
EBren egoitzaren aurka kok-
telak jaurti zituzten, Euska-
diko Kutxaren egoitza bati
eraso zioten kristalak apur-
tuz, Kutxako bi kutxazain
kaltetu zituzten eta baita
Central Hispano banketxe-
ko beste kutxazain bat ere.
Udaltzainek jakitera eman
zutenez, Pottoko tabernaren
kanpoaldeko paretaren aur-
ka koktel bat jaurti zuten
erasotzaileek bertako beze-
roek euren jarrera gaitzetsi
ondoren. Elizako parrokoak
eta Pottoko jabeek ukatu
egin zuten beraien aurkako
eraso zuzenik izan zenik.

Erasoaren berri izan eta
Ertzaintza bertan azaldu zen
eta istiluak izan ziren. Barne



Sailak emandako datuen
arabera, istiluotan hiru er-
tzainek zauriak izan zituz-
ten. Era berean, Lazkaoko
25 urteko A.S.M. eta Ataun-
go 17 urteko A.T.I. gazteak
atxilotu zituen istiluetan par-
te hartu zutelakoan. Bi gazte
hauen familiakoei salatu zu-
tenez, gazteek ez zuten isti-
luetan parte hartu, beraiek
"poteatzen" ari zirenean era-
sotu baitzuten kaputxadu-
nek. Horrekin batera, atxilo-
keta beraien autora zihoaze-
nean gertatu zela argitu nahi
izan zuten, eta ez istiluetan
parte hartzen zirenean.

Bi atxilotuek Tolosako
epailearen aurrean deklaratu
zuten asteartean, eta libre
uzteko agindua eman zuen
epaileak. Hori bai, astelehe-
nero epaitegian sinatu beha-
rra izango dute biek.

Larunbateko istiluak gait-
zesteko, igandean bertan Or-



diziako udal gobernua osa-
tzen duten EAJ, EA eta
PSE-EE alderdiak bildu eta
gertaerak gaitzetsi zituzten.
Horrekin batera, elkartasuna
adierazi zieten zauritutako
hiru ertzainei eta erasoek
kaltetutako guztiei. Era be-
rean, Gobernu batzordeak
"itzalean eta aurpegia eman
gabe erasotzaileak antola-
tzen" dituztenak salatu zi-
tuen eta Ordiziako HBri ger-
taera hauen inguruan duen
iritzia azaltzeko eskatu zio-
ten 3 alderdiek (4. orrian du-
zue HBren erantzuna). Az-
kenik, gertaerak gaitzesteko
manifestazioarako deialdia
luzatu zuten, astearterako,
irailaren 23rako, 'Pakaren
alde elkarturik' lemapean.
PPk eta IU-EBek ere istiluak
gogor gaitzetsi eta manis-
fazioaren deialdiarekin bat
egin zuten. Udalaren eta
Barne Sailaren arabera,
2.500 eta 3.500 lagun bitar-

tean elkartu ziren.

Ezker Abertzaleak bere
aldetik, atxilotuen askatasu-
na eskatzeko manifestazioak
egin zituen Ataun eta Lazka-
on. Ongi-etorriak ere eskaini
zizkioten bakoitzari bere he-
rrian atxilotuak libre gelditu
ondoren. Era berean, joan
zen iganderako, irailaren
28rako, manifestazioa anto-
latu zuen Ordizian, 'Askata-
suna eta Bakea. Demokrazia
Euskal Herriarentzat' lema-
pean. Gazteen aurkako kri-
minalizazioa salatu nahi
izan zuen Ezker Abertzale-
ak. 600en bat lagunek hartu
zuten parte bertan.

Azkenik bukatzeko, esan,
Ordiziako Udalak bi atxilo-
tuen aurkako epaiketan aku-
sazio partikular bezala parte
hartzeko erabakia hartu zue-
la, baldin eta atxilotuek isti-
luetan parte hartu zutela
baieztatzen bazen.

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 88 60 70

BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.

BEASAIN



'Gure eskuetan' talde bakezaleak antolatutako hitzaldi zikloaren barruan, Jose Maria Calleja kazetaria izan zen Beasainen, irailaren 19an. 'Biolentzia, herritarren erantzuna eta komunikabideak' gaia izan zuen hizpide. Udaletxeko Areto Nagusia bete egin zen.

'Indarkerian hezi'

Goierriko Gesto por la Paz taldeak 'Indarkerian hezi' karpeta didaktikoa aurkeztu zuen irailaren 26an, Beasaingo Udaletxean. 12-18 urte bitarteko ikasleentzat egokitutako karpetak dira. Bakearen kultura, berdintasuna, elkartasuna, elkarrizketa, pluraltasuna eta indarkeriarik ez bezalako baloreak transmititu nahi dira.

Bertso eskola

Urriaren 13an irekiko dituzte aurten ere Goierriko bertso eskolak. Urtero izena ematen duten ikasleek gain, gazte gehiago animatuko delakoan daude aurten ber-

tso irakasleak. Klaseak astelehenero emango dira Ordiziako Barrena kultur etxean, 5:30etatik 7:00ak bitartean. Bertso eskolakoek adierazi dutenez gainera, ohiko eskolaz gain badago bat-bateko talde bat, bertso-etarako erreztasuna lortzeko biltzen dena.

Josune Bereziartu

Alacanten jokaturako Espainiako Kopako 2. proba irabazi zuen Josune Bereziartu Beasaingo eskalatzailak. Ricardo Otegi ordiziarra 7. izan zen, gizonetakoan. Azken proba urriaren 11n jokaturiko da Murtzian.

Lan eskaintza

Goimen elkarteak dinamizatzaile lanpostua betetzeko deialdia luzatu du. **Lanpostuaren eginkizunak:** nekazal elkarteekin harremanak sakontzea eta sektorean egon daitezkeen proiektu eta ideiak Juntan aurkezte, horietako zenbait proiektu aurrera ateratzen lagunduz. **Hautagaiak bete beharreko baldin-**

tzak: baserritarra izatea; baserrian bizi eta nekazal jardura izatea edo nekazal arloko ikasketak burututa izatea; eta Goierriko udalerri baten bizitzea. **Izen ematea:** Goimen Elkartean (Ordiziako Santa Maria kalea, 4an) jaso ahal izango den instantzia bete eta bertan entregatu beharko da, urriaren 22a aurretik.

Artzaintzat ikastaroak

Artzai Gaztak, ELEk eta Zabalegik elkarlanean 3 ikastaro antolatu dituzte artzaintzat. Hiru ikastaroak Ordizian emango dira, 10.00etatik 1.00era. Gaiak eta ikastaro bakoitzeko egunak hauek dira: ● **Gazta egiteko oinarritzko ikastaroa:** Gazta ona egiten ikasteko jakin beharreko gaiak azalduko dira. Urriaren 6tik 10era. ● **Gaztagintzari buruzko ikastaro berezia:** esne kalitatea eta arriskuak, esne analisisen interpretazioa, gaztategian kalitatea kontrolatzeko teknikak, erregistro sanitarioa eta gazta saltzerakoan jokabideak. Urriaren 20tik 24ra. ● **Artaldearen manejoa esne asko eta ona lortzeko:** ganadua nola bazkatu, artegiak, zintak, parrilak, ardi eta arkumeen gaitzak, hazkuntza, ongarriketa, jeitzeko makinak, hobekuntza genetikoa... Urriaren 13, 14, 15, 27, 28 eta 29an. Izena emateko hauetako telefono batera deitu: Zabalegi: 55 20 20; ELE: 81 14 31 - 81 46 47; Artzai Gazta: 18 71 29.

Mikel Astarloza

Aguilar-Artza-Ortzeok taldeko Mikel Astarloza txirrindulariak irabazi zuen

irailaren 20n jokaturako Beasaingo XVII. jubenilentzako proba. Beñat Garaialde beasaindarra 4. izan zen eta J.J. Lasa 9..



Xikel

NEVES
BANATZAILEA

Urdaneta, 41

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

161606

ORDIZIA

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

**LAZKAO
GARAJEA**

RENAULT

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
AGENTZIA LAZKAO

**TOYOTA
GOIERRI AUTOAK**



TOYOTA CELICA
3.175.000 pezetatik
3 URTE GARANTIA **24 ORDU ASISTENTZIA**
ORDIZIA
☎ 88 20 05 - 88 10 73

DEI GOÑI ETA IGOR GARIKANO SUKALDARI GAZTE SARITUAK: Goierriko sukaldaritza berria platerean

Dei Goñi lazkaotarra eta Igor Garikano ordiziarra sukaldari gazteak dira. Bi sari garrantzitsu irabazi dituzte aurtan. Deik Espainiako oliba-olioa sustatzeko lehiaketa eta Igorrek Ordiziako sukaldari gazteena.

Betidanik ibili izan dira lardaskan eta saltsan etxeko sukaldean Dei eta Igor. Orain, ordea, afizioa ofizio bihurtzeko bidean daude. Sukaldaritza ikaskeketak ari dira burutzen biak; Dei Luis Irizar sukaldariaren eskolan eta Igor Ategorrietako eskola ofizialean. Gaur egun Gipuzkoan dauden sukaldaritza eskola gehienak, Ategorrietakoa eta Oñatikoa izan ezik, pribatuak dira.

Ikasgelan eta sukaldean

Eskolaz gain, praktika ugari egiteko aukera izaten dute inguruko jatetxeetan, sukaldari ospetsuengandik ikasteko. "Eskolan oinarria hartzen da, sukaldara joatean non zabiltzan jakiteko. Oinarri horrekin jatetxeetan praktikak egiterakoan ikasten da", dio Deik. Hori bai, adi egon behar beti. "Sukaldariak oso gutxi era-



Dei Goñi

26 urte, lazkaotarra

Ikasketak: Luis Irizarren eskolan

Saria: Europako Elkar-teak oliba-olioa sustatzeko lehiaketa, lehenengo plater sailean.

Plater irabazlea: Euskal Herrian ditugun produktuak aprobetxatu zituen. Ilar, baba eta Tolosa-ko babarrun salteatua, Idiazabal gaztaren zaporea zuen oliba-olioarekin aromatizatua. Gainean Idiazabal gaztaren "krujienteak" jarri zizkion.

kusten dute, ikusi egin behar da, etxera joan, apuntatu eta ondo ikasi". Plater berriak egiteko inspirazioaren iturria izaten dituzte praktikak. Liburuak ere bai. "Proba asko egin behar da platerak asmatzeko, lan asko egin behar da eskolan eta etxean", dio Igorrek.

Beste herrialdeetako kultura, sukaldaritza ere dastatu eta ikasi beharreko ikas-



Igor Garikano

22 urte, ordiziarra

Ikasketak: Ategorrietako Sukaldari Goi eskolan.

Saria: Ordiziako sukaldari gazteen I. lehiaketa.

Lehenengo platera: Potxa krema, ziza salteatua eta foie. **Bigarren platera:** arkume terrina, "letterita", arandoi edo "moileja", ondo eta Idiazabal gaztarekin. **Postrea:** euskal pastela, sagar eta intxaurrekin, mouse, Idiazabal gazta eta sagardo karameluarekin.

gaia dute. "Gusto ezberdina hartu behar dira". Atzerrira joateko aukera behintzat badute sukaldari gazte euskaldunek. Eskolatik bertatik, ikasketak bukatzerako aukera izaten dute. Igorrek asmo horixe du, "beste kulturak, beste platerak ikastera, esperientzia berriak jasotzera. Sukaldari on batek bertakoa eta kanpoko ikasi behar du".


Deik, ordea, beste asmo batzuk ditu: "27 urte ditut ia eta ezin naiz hara eta hona ibili. Jatetxe bat ireki, al-kilatu, erosi... serio hasi beharra daukat lanean".

Sukaldari euskaldunek fama handia daukate munduan. Igorren esanetan, "moda kontua ere bada, baina hala ere, maila handia dago Euskal Herrian". Deik gaineratu duenez, "Espainia mailan begiratzu gero, sukaldari onenak Donostialdekoak dira. Betidanik hemen oso ondo jan da eta horrek ere fama ematen du".

Euskaldun gazteak preziatuak

Karlos Argiñano sukaldari beasaindarak esaterako, Hego Amerikan euskal sukaldaritza punta-puntan jarri du, telebistako saioekin. "Hori ondo dago, sukaldari euskaldunak eskatzen baitituzte handik", esan du lazkaotarrak. Joan ere gainera, sukaldari buru joaten dira eskola bukatutakoak, bi gazteek argitu digutenez.

Orain artean ez dute beste herrietako sukaldaritza gehiegirik ezagutzen. Baina Deik konparazio bat egin digu: "Janari txinatarra esaterako, beti berdina da, urte guztian berdina jan daiteke. Euskal sukaldaritza hori dauka ona, denbo-



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN



"Lehiaketekin izena hartzen da, jendea motibatzen da, konpententzia sortuz".

raldiko produktuekin osatu-tako karta izaten dela. Kan-poko sukaldaritzan ez dut horrelako aukerarik ikusi".

Deiren ustez, horixe aprobeixatu behar da: den-boraldiko bertako produk-tuak erabiltzea. "Bertako lehengai onak ditugu eta erabili egin behar dira". Biek ere Idiazabal gazta, as-ko erabiltzen dute.

Euskal sukaldaritza berria

Bi sukaldari gazte goierritar-rrak euskal sukaldaritza be-rria prestatzen dute. Igo-rrek adierazi duenez, "tra-dizionala ondo dago, baina tradizionala etxean jan dai-teke". Deik sukaldaritza tradizionala ez dela ahaztu behar dio. "Sukaldaritza berria egiteko oinarritzko gauzak egiten jakin behar da. Sukaldaritza moderno-an nagusi diren sukaldari askok, seguru ez dakitela

babarrunik egiten. Baba-rrunak beti egon behar dira kartan. Goiko sukaldari izateko beheko sukaldaritza jakin behar da".

Jateko momentuan, or-dea, betikora jotzen omen dugu euskaldunok. "Gauza berriak probatzeko Subija-na, Arzak edo horrelako le-kuetara joan behar da, bai-na oso garestia izaten da. Betiko jatetxeetara joaten gara euskaldunok normale-an eta betiko jana jaten du-gu. Jendea irakurten egiten zaio gauza berriak jateko. Ohitura falta dago", dio Deik.

Ordiziarrek esan duenez sukaldaritza berria "gares-tia ez da, lan asko dauka eta hori ordaintzen da. Proba asko behar izaten da plater berri bat asmatzeko, lan handia da". Deik gaineratu duenez, "erabiltzen diren produktuak oso garestiak izaten dira. Begitik asko ja-

- Platerik gustokoena?

Dei: haragia eta batez ere ehiza.

Igor: haragia eta arraina.

- Zuen ametsetakoa jatekoa?

Dei: jatekoa ireki Lazkaon, ez baitago jatekoerik, edo bes-tela Jaca edo Huesca aldean, euskaldun asko ibiltzen baita bertan urte osoan. Donostian ireki ez nuke egingo, alkilatu baizik. Goierrin turismoa bultzatu nahi dute eta inguru ho-netan jateko bat irekitzea oso interesgarria da. Batez ere, ehiz eta haragitan espezializatua.

Igor: ez dut pentsatu ere egin. Donostia aldean irekiko nu-ke jateko bat, denboraldiko produktuetan espezializatuz.

- Perrexila beharrezkoa al da?

Biak: Momentu askotan bai, baina beste produktu asko daude.

- Sukaldari ona izateko zer behar da?

Biak: Gogoia, pazientzia, esperientzia eta lan asko egitea.

- Sukaldaririk onena?

Dei: Jose Juan Castillo, Nikolasakoa.

Igor: Juan Mari Arzak.

- Neska sulkari profesional gutxiago dago. Zergatik?

Dei: esaten da neskek gehiago sufritzen dutela sukaldan. Neskek gehiago aguantatzen dute eta mutilek sentitzen du-guna bota egiten dugu. Orduan lehertu egiten dira. Matxis-moa ere ikusten da sukaldeetan oraindik. Bronka guztiak ere neskak jasoko ditu.

Igor: Ez dakit, nik ez dut ikusi oraindik horrelakorik.

- Zein mania duzue?

Dei: ez zait gustatzen gelatinarik erabiltzea. Batzuk gehiegi erabiltzen dute.

Igor: ez daukat maniarik, dena gustatzen zait.

ten dugu, eta dekorazioak garrantzia handia dauka. Eta garesti ateratzen da de-na".

Bi sari garrantzitsu iraba-zi dituzte aurten Deik eta Igorrek. Lazkaotarra Gas-teizen egingo den Espainia-ko Sukaldari gazteen txa-

pelketa ari da prestatzen. "Lehiaketek izena ematen dute eta txapelketa hori iraba-zea izugarria izango li-tzateke", dio Deik. "Lehia-ketekin izena hartzen da, jendea motibatzen du, kon-pententzia sortzen du. Oso prestatua joaten da jen-dea", gaineratu du Igorrek.


ORDIZIAKO



Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa



88 23 00

ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE

ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegi tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 16 22 56 ORDIZIA

Goiekik antolatutako ideia berriztatzaileen 1go lehiaketako sariak banatu dira

Salvador Lobero donostiarrek 'Gurpil-aulkia autonomia pertsola errazteko' proiektuarekin irabazi du Goiekik eta Goierriko hainbat enpresek antolatutako 'Ideia berriztatzaileen 1go sariketa'. Bigarren saria Tolosako Guillermo Salgueirarentzat izan da, 'Testigu akustikoa berezko autonomia duten ibilgailuentzako argien pizte-sistema eta itzaltze-sistamarako' proiektuarekin. Irailaren 19an egin zen saribanaketa.

Goierri enpresarialki garatu daitezkeen proiektuak bultzatzeko asmoarekin antolatu zen 'Ideia berriztatzaileen 1go sariketa', Goieki eta Ampo, Aris-train, Bilore, CAF, Ederfil, Eredu, Guerra Hermanos, Industrias Landu, Irizar, Izar, Jose Eguren, Orkli eta Talleres Jaso Goierriko enpresek. Lehenengo edizio honetan 35 proiektu aurkeztu dira, goierritarrek aurkeztutakoak 13 bat.



Ezkerrean: Salvador Lobero irabazlea, 1.000.000 pezetako saria jaso du.



Eskubian: Guillermo Salgueira. 200.000 pezetako saria jaso du.

Salvador Lobero

Salvador Loberok bere etxean duen arazoan oinarritutako proiektua aurkeztu du. Gurpildun aulkitik, norbere kabuz, zutik jartzea eta goratzea errazten duen gurgildun aulkia, hain zuzen ere.

Gurgildun aulkian eserita egonik, belaunak ia angelu zuzena osatzen dute, eta zutitzeko momentuan indar handiko palanka egitera behartzen dute. Aulki hau, gradu ertain bateraino igoz (erabiltzailearen altueraren baitan dago) eta oinak lurzorutik kendu gabe, belaunen anguloa pixkanaka txikiagotzen joango da egin beharreko indarrezko palanka zertxobait arinduz.

Bestalde, gurgildun aulkiaren neurriak etxean ditugun zenbait lekutara iristea (leihoak, armairuak...) eragozten du. Gauzak honela, Loberoren proiektuak, igogailu funtzioa ere betetzen du. Aulki mota honek goratzeko duen ahalmenak, erabiltzailea pertsona normal baten altueraraino altxatzen du. Azken batean ezindua bakarrik balia dadin lortu nahi da.

Donostiarrek saribanaketako ekitaldian aipatu zuenez, mekanismo hau edozein aulki eta butakatan ere aplika daiteke.

Guillermo Salgueira

Zirkuitu elektroniko baten proiektua aurkeztu du sari-

ketara tolosarrak. Ibilgailuaren argiak piztu eta itzali behar ditugun momentuaren berri emango diguna, bai ibilgailua errepidean doanean, bai geldi dagoela, beti ere kontaktu-giltza konektatua egonik. Kontaktu-giltza deskonektatzean, argiak piztuta badaude, ateren bat irekitzean, hauek itzaltzeko ohartuko digu. Azken batean, testigu akustiko baten bitartez ohartaraziko gaitu, argiak noiz piztu eta noiz itzaltzeko behar diren. Honela, argiak aldizka piztuta eramatea eragotziko da, gainontzeko gidariak despistatzeko arriskuaz.

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZO TRATAMENDUA**

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

R.P.S. 213/97

Eskatu ordua: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22

Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA

NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

ROSA ARMENDARIZ ZALDIBIAKO MONDEJU ZURI LEHIAKETAN IRABAZLEA "Santafetan jendea mondejuak jatera etortzen da"

Zaldibiako festetan, Santafetan, ezinbesteko jakia da mondejua. Etxe eta taberna guztietan izaten da mondeju mutur bat bertaratzen denarentzat. Honetaz hitz egiteko Aierdi baserrira jo dugu, bertako etxeakoandrea den Rosa Armendarizengana. Azken bi urteetan Zaldibian bertan ospatzen den Ardi egunean Rosak 1. eta 2. postuak lortu baiditu mondeju lehiaketan.

Mondejuen kontua ez da berria Zaldibian, baina ohiturak asko aldatu dira. "Lehengoa festetan mondeju eta ardiki asko jaten zen, baita oilaskoa piperrekin eta aza odolkiarekin ere. Festatarako ardian hiltzen zen eta mondejuei tripakiak ere nahasten zitzaizkien, orain ere batzuek nahasten die baina nik ez dut horrelakorik egiten. Gustoko duenak mondeju zopak ere jaten zituen arren otorduan ez da lehen bezala jaten", azaldu digu Rosak.

Garai honetan hasten dira Zaldibian mondejuak egiten, festetarako mondeju afan handia egoten baita. "Santafetan jendea monde-



Mondeju zuriaren sekretua

Aierdiko etxeakoandreak erabiltzen dituen osagaiak hauek dira: ardi segoa, porrua, pipar gorria eta ogi zaharraren mami pixka bat. "Ogiak gozatu egiten du, nik amarengandik horrela ikasi nuen eta horrela egiten dut. Batzuk tipula ere botatzen diote baina nik ez, mondeju beltzari bai". Porrua eta segoa kopuru berdin samarrean jarri behar dira. Egosteko ardi haragiarekin salda egin behar da eta han egosi. Honak zapore hobea ematen dio. Arrautza gogortu bitartean edukitzen ditu Rosak lehenengo egosialdian. Gero jateko garaian ordu erdi eta ordubete artean edukitzen ditu sutan xuabe-xuabe.

juak jatera etortzen da, gaur egun dagoen aukerarekin ez dakigu zer jan ere eta". Gero artzai egunerako ere egiten ditu Rosak, "egun hauetaz gain, berriz, iruditzen zaidanean".

Etixerako, familirako eta lagunentzat egiten dituzte Aierdin mondejuak. "Zaldibiako etxe askotan egiten dira oraindik, baina asko

erreztu da, harategitik eraman eta kitto. Egiteak lana ematen baitu. Txikitu, nahastu, hesteak bete, lotu, dena eskuz egiten dut. Orain zenbaitek osagaiak harategira eramaten ditu txikitzen, lana kentzearen. Nik eskuz txikitzen dut dena, sustantzi gehiago gertatzen zaiolako. Makinan beti ere salda galtzen du eta hor

zaporea joaten da", dio Rosak.

Baldintza onenak

Lehengai onak ere badu garrantzia Rosarentzat, "hobe da baratzeatik bildu berria den porrua zimelduta dagoena baino. Piperak freskoak direnean, bihiago egiteko pipermina edo gindila txiki hoietako bat gehitzen diot". Hotzarekin hobe egiten dira mondejuak, "euliak ere gutxiago egoten dira eta hobe da. Kotserbatzeko orain hotzgailuekin errezagoa da, lehen sesina egiten zen, orain berriz gutxiago egiten da". Esaten da mondejuak egin eta asentatzen eduki ondoren hobeak egoten direla, Rosak, berriz, egindako egun berdinean probatzen ditu.

Mondeju txpeldunak

Ardiki eguneko mondeju lehiaketara bi aldiz aurkeztu da, "jendea aurkezten zela eta etxeokoe animatu ninduten, nik eginda jarri nituen, semeak eraman eta irabazi egin genuen. sorpresa handia izan zen".

Mondeju zuriaz gain "ardian hildakoan eta odola dugunean beltza egiten dugu, baina hemen ez dago Ataunen-eta dagoen ohitura, hemengoa zuria da, gainera nerretzat finagoa da. Odolkiak ere egin izan ditut".

GUREA MERTZERIA (PEPITAN DENDA)

Arropa denda

- ◆ Emakume
- ◆ Gizon
- ◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 88 57 98 ZALDIBIA

Jai zoriontsuak denoi!!

Garbitasunak

OXEPI

☎ 88 96 67 ZALDIBIA

NAZABAL ERRETEGIA

Otordu goxoak janez
lagunarteko giroa

☎ 88 71 46 Sta. Fe Kalea
ZALDIBIA

ROSA ARMENDARIZ ZALDIBIAKO MONDEJU ZURI LEHIAKETAN IRABAZLEA

"Santafetan jendea mondejuak jatera etortzen da"

Zaldibiako festetan, Santafetan, ezinbesteko jakia da mondejua. Etxe eta taberna guztietan izaten da mondeju mutur bat bertaratzen denarentzat. Honetaz hitz egiteko Aierdi baserrira jo dugu, bertako etxekoandrea den Rosa Armendarizengana. Azken bi urteetan Zaldibian bertan ospatzen den Aierdi egunean Rosak 1. eta 2. postuak lortu baiditu mondeju lehiaketan.

Mondejuen kontua ez da berria Zaldibian, baina ohiturak asko aldatu dira. "Lehengoa festetan mondeju eta aierdi asko jaten zen, baita oilaskoa piperrekin eta aza odolkiarekin ere. Festetarako ardia hiltzen zen eta mondejuei tripakiak ere nahasten zitzaizkien, orain ere batzuek nahasten die baina nik ez dut horrelakorik egiten. Gustoko duenak mondeju zopak ere jaten zituen arren otorduan ez da lehen bezala jaten", azaldu digu Rosak.

Garai honetan hasten dira Zaldibian mondejuak egiten, festetarako mondeju afan handia egoten baita. "Santafetan jendea monde-



Mondeju zuriazen sekretua

Aierdiko etxekoandreak erabiltzen dituen osagaiak hauek dira: ardi segoa, porrua, pipar gorria eta ogi zaharraren mami pixka bat. "Ogiak gozatu egiten du, nik amarengandik horrela ikasi nuen eta horrela egiten dut. Batzuk tipula ere botatzen diote baina nik ez, mondeju beltzari bai". Porrua eta segoa kopuru berdin samarrean jarri behar dira. Egosteko ardi haragiarekin salda egin behar da eta han egosi. Honak zaporea hobe ematen dio. Arrautza gogortu bitartean edukitzen ditu Rosak lehenengo egosialdian. Gero jateko garaian ordu erdi eta ordubete artean edukitzen ditu sutan xuabe-xuabe.

juak jatera etortzen da, gaur egun dagoen aukerarekin ez dakigu zer jan ere eta". Gero artzai egunerako ere egiten ditu Rosak, "egun hauetaz gain, berriz, iruditzen zaidanean".

Etixerako, familirako eta lagunentzat egiten dituzte Aierdin mondejuak. "Zaldibiako etxe askotan egiten dira oraindik, baina asko

erreztu da, harategitik eraman eta kitto. Egiteak lana ematen baitu. Txikitu, nahastu, hesteak bete, lotu, dena eskuz egiten dut. Orain zenbaitek osagaiak harategira eramaten ditu txikitzen, lana kentzearen. Nik eskuz txikitzen dut dena, sustantzi gehiago gertatzen zaiolako. Makinan beti ere salda galtzen du eta hor

zaporea joaten da", dio Rosak.

Baldintza onenak

Lehengai onak ere badu garrantzia Rosarentzat, "hobe da baratzatik bildu berria den porrua zimelduta dagoena baino. Piperrak freskoak direnean, biziago egiteko pipermina edo gindila txiki hoietako bat gehitzen diot". Hotzarekin hobe egiten dira mondejuak, "euliak ere gutxiago egoten dira eta hobe da. Kotserbatzeko orain hotzgailuekin errezagoa da, lehen sesina egiten zen, orain berriz gutxiago egiten da". Esaten da mondejuak egin eta asentatzen eduki ondoren hobeak egoten direla, Rosak, berriz, egindako egun berdinean probatzen ditu.

Mondeju txepeldunak

Aierdi eguneko mondeju lehiaketara bi aldiz aurkeztu da, "jendea aurkezten zela eta etxekoek animatu ninduten, nik eginda jarri nituen, semeak eraman eta irabazi egin genuen. sorpresa handia izan zen".

Mondeju zuriaz gain "ardia hildakoan eta odola dugunean beltza egiten dugu, baina hemen ez dago Ataunen-eta dagoen ohitura, hemengoa zuria da, gainera nerretzat finagoa da. Odolkiak ere egin izan ditut".

GUREA MERTZERIA (PEPITAN DENDA)

Arropa denda

- ◆ Emakume
- ◆ Gizon
- ◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 88 57 98 ZALDIBIA

Jai
zoriontsuak
denoi!!



☎ 88 96 67 ZALDIBIA

NAZABAL ERRETEGIA

Otordu goxoak janez
lagunarteko giroa

☎ 88 71 46 Sta. Fe Kalea
ZALDIBIA

Urriak 7, asteartea:

12:00etan: Haurren joko eta jolasak herriko plazan.

Eguerdina: Haurren bazkaria, plazan. Norberak bere bazkaria eraman beharko du.

17:00etan: Haurrentzat abere festa plazan, Gorriti eta bere abereekin.

Ondoren: Merienda.

18:30etan: Takolo, Piritx eta Porrotx pailazoak.

22:30etan: Tirri Tarra show.

Urriak 10, ostirala:

12:00etan: Sukaldaritza lehiaketa.

Ondoren: Bazkaria.

18:00etan: Futbol txapelketako finala.

19:30etan: Plazatik Atxuraren bila jokoari hasiera emango zaio.

22:00etan: Pilota parti-



duak: **Jubenila:** Iraola-Eskisabel Mendizabal-Ruizen aurka; **Promesak:** Jauregi-Sukia Saralegi-Elolaren aurka.

00:00etan: Imuntzo eta Beloki trikitilariak.

01:00ean: Amnistiaren Aldeko Komiteak antolatutako manifestazioa.

Ondoren: Zaldibiako gazte taldearen eskutik Play-back lehiaketa.

Oharra: Mozorro gaua izango da. Herriko tabernari guztien artean, aukerutako lehenengo 14 mozorro hoberenei, taberna bakoitzak 2 lagunentzat afaria eskainiko du.

Urriak 11, larunbata:

13:00etan: Koadrilen irteera Koskola txarangarekin.

14:00etan: Bazkaria herriko plazan.

Ondoren: Plazan eta txarangak girotuta koadrilen arteko jokoak.

Arratsaldean eta afal ordurarte: Koskola txarangarekin kalejira.

01:00ean: Etzakit musika taldea. Ondoren txokolate jana.

Urriak 12, igandea:

19:30etan: Aurtengo jaiei bukaera emateko, Mondejuaren entierroa. Bertan parte hartzeko lutoz jantzita azaldu.

PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA

Tfnoa.: 88 28 68

IÑAKI ERAUSKIN HARATEGIA

Mondeju ederrak!

☎ 88 30 87

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA

Gaztelu

Mendi-Ondo etxea

☎ 88 40 57

ZALDIBIA

● **Iturgintza**

● **Berogintza**

Esteban Lasa, 7

☎ 88 80 29

BEASAIN



ARRESE

Jatetxea

Festa onak opa dizkizuegu

☎ 88 17 14

ZALDIBIA

GANBO, S.A.



ANDERE
lenceria

☎ 88 35 12 - 16 Elbarrena Auzoa, 2
Faxa: 88 35 12 **ZALDIBIA**

ZALDIBIA

Festaburu: Santafetako umorea

Umoreak tokirik ez duen lekuan ez dago festarik, baina umorea oso gauza serioa da. Jendeak festak arinegi hartzen dituen errezola daukat. Pentsatu, gero!, urte osoko martxa eten eta zerbait diferentea egiteko egunak direla festak. Gauza transzendentel bakarra umorea den garaian (umorea oso transzendentala da, hil ala bizikoa) ez dago ezer aurreragokorik. Umorea da gauza guztien neurria. Umorea oso errealista da. Umoreak ez du deus exajeratzen, ñabar-durak nabarmendu baizik. Umoreak ez du iraintzen. Umorea ez da objetibotasuna baino. Umorea ez dago beste ezerkin nahasterik, olio ur gainean bezala geratzen da.

Norbaitek esango dit ea nik zer ote dakidan festei buruz, horretan ez naizela espezialista eta. Ezta nahi ere! Badakizue zer den espezialista bat?, gero eta gauza gutxiagoz hainbat eta gehiago dakiena, ezerezi buruz dena jakin arte. Begira, gauzak distantzia apur batekin ez badira ikusten, nik festak bezala, ez dago ondorio zuzenik aterako duenik. Ardoaren kalitateari buruz ez dago zuzen mintzatzerik moskortutakoan. Portzierto zer da hobe, Chivas ala Soberanorekin moskortzea?

Eta bandera eta horrela-ko gauzei ez nieke jaramo-

nik egingo festetan. Behin eskolan hala galdetu zion Villamarinek gure lagun bati, artean ikastolarik ez zen garaian, «Qué es una bandera?» Eta lagunak erantzun: «Una pieza de tela de dos metros por uno veinte». Nire lagunak belarrikinakoa eta kate bat jaso zituen arren, definizio hori, unibertsala ez ezik, mundiala iruditzen zait.

Barre egin behar dugu festetan, batez ere geure buruari. Geure buruaren karikatura bat izaten saiatu behar dugu festetan. Hor ez dago inolako desondrarik. Karikaturak egiten duena da axaleko lustrea kendu eta gauza printzipalak azpimarkatu. Horregatik azaldu ohi gara karikaturan edozein argazkitan baino nortasun handiagoarekin. Herriaren fama onaz ez gaitezen ardurara. Azken finean, zer da herri bat? Hara eta hona ibiltzeko toki bat besterik ez, azkenean denok bilduko garen baratza batekin. Bertsolarietako ematen dituzte definizio kontsolagarrixeagoak, baina horiei ere gehien inporta diena da ko-bratu eta, lehenbailehen, beste bat goraiatzera joateko libre izatea. Ez, ez dezagun herria jainkotu; edo Jainkoa herritartu. Izan gaitetzen festetan festazaleak soilik, eta ez abertzaleak,



humanistak, bakezaleak, borrokariak, etab. Festazaleak eta kitto! Denok festazale, nola eskuin-puntakoak hala ezker-muturrekoak, eta berdin "extremo centro"koak.

Kanpotik datozenak ere umorez hartu behar ditugu. Propaganda egin, garraio publikoa erabiltzeko gonbitea luzatu, baina Aizpunteberri pareraino autobus zaharrean ekarri eta han transbordo eginarazi, guk Ordiziak baino autobus hobeak ditugula erakusteko, eta, kamioa itxita egongo denez, Zaldibarren parean jaitsiarazi edo Gaintzatik jiran etortzeko aukera eman.

Eta eliza joan behar oten den galdetzen al didazue? Horixe baietz! Hona hemen Santafe egunerako parabola polita. Behin batean, Jesukristo eta San Pedro musean ari omen ziren. San Pedrok ordago txikira jo omen zuen lau batekorekin. Eta Jesukristok bost bateko atera. Orduan Simon Pedrok, «Bazekiagu mirariak egiten

dituala, baina hori musean tranpa duk». Beste batean, Jesukristo ur gainean oinez ibili zen egun hartan, Erreberako nafar bat tokatu hantxe, eta hala egiten omen zuen: «Pero, redio!, ¿como va a ser el Hijo de Dios, si no sabe ni nadar».

Festa ilusioa da eta horixe izan behar du. Fedeak ez dakit, baina ilusioak mendiak eta itsasoak, denak, mugi ditzake. Fantasia da errealtatearen muga go-gaikarriak gaudituz eta hegan egitea ametitzen digun gauza bakarra. Eta ez dago izugarritzko festa egin beharrik, baizik eta gauza txikiekin gozatu. Portzierto, gizonek beti bi alternatiba dauka: edota desio duen guztia lortu, edota hainbeste ez desiatu. Zein da bietan errazena? Eta zorion-bide ziurrena? Festak jolasa dira, ez dira egun produktiboak, baina horregatik dira, hain zuzen, inportanteak. Deus ematen ez duena baloratzen jakitea baino ekintza duin eta nobleagorik ez dago gizonarentzat.

Nik, entzundakoak, pentsatutakoak eta okurritutakoak, denak, esan ditut. Orain zuena da hitza. Nahi baduzue bete; nahi ez baduzue, ez; baina umorez pasa Santafeak!

Rufino Iraola

ESTANKO

taberna

Pintxo bereziak

Festak ondo pasa

☎ 88 28 65

Sta. Fe, 15

ZALDIBIA



☎ 88 00 44

LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

→ 4 logela, beren bainugelekin

→ Gosari, bazkari eta afariak

Aiestaran erreka

ZALDIBIA

LAZKAO

Sanmielak iruditan



Nesken arteko areto-futbol txapelketa

Txapelketa hau Sanmieletako ekitaldi bat gehiago den arren, urtetik urtera indar gehiago hartzen ari da talde eta ikusle gehiagorekin eta nola ez joko maila hoberekin.

Aurten zortzi izan dira parte hartu duten taldeak, Lazkao, Ataun, Ordizia, Beasain, Zaldibia, Legorreta, Idiazabal eta Urretxukoak. Hauetatik lau finalerdietara sailkatu ziren: Lazkao, Legorreta, Ordizia eta Idiazabal. Eta finalerdiko gogor batzuk jokatu ondoren Lazkaok eta Legorretak jokatu zuten finala Sanmiel egunean.

Txapelketa guzia bezala finala ere maila oso onekoa izan zen. Ikusle dezente bildu zen kiroldegian finala ikustera bai eta disfrutatu ere neskek erakutsitako joko mailarekin. Lehen zati gogor baten ondoren (1-1), bigarrenean erraz irabazi zuen Legorretak 7-2ko emaitzarekin.

Aurten gainera ekitaldi hauetako batzuk oso arrakastatsuak izan dira, hala nola, Esparruko erromeria,

dantzari txiki eguna, sagardo dastaketa eta nola ez Sanmiel eguneko afari herrikoia.



Esaten dute irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela, eta hitz gutxi eta argazki batzuk dituzue, Sanmieletan izan dugun giroa argiagotzeko dutela-koan.

Urte sasoi honetan beti

dago herrian ondo pasatzeko aitzakiren, Esparruko erromerian hasi eta Sanmiel eguneko ordu txikitik amaituz lazkaotar asko dira hainbat eta hainbat ekitalditan parte hartuz herriari giro berezi bat ematen diotenak.

ORMAIZTEGI

Giro ederrean ospatu ziren Sanmielak

Giro ederrean eta eguraldi ezin hobez ospatu ziren aurtengo San Migel festak. Azpimarragarria da aurten ekintza guztiek herritarren artean izan duten arrakasta ona eta partaidetza handia.

Aurtengo San Migel ospakizunei hasiera eman zien ekintzak herri jokoak izan ziren. Beraien artean larunbat goiz eta arratsaldean ospatu ziren toka, harrikalari eta mus txapelketa izan ziren. Guztietan herritar gazteen partaidetza handiak giro ezin hobea

jarri zuen.

Jokoak amaitzearekin batera herriko enparantzan ospatu zen afariari hasiera eman zitzaion. Bertan herri afari gutxitan bezala, 220 herritarrez osaturiko kopurua bildu zen. Afaria giro ederrean burutu zen, eta bukaera trikitri doinu eta suziriez eman zitzaion.

Igande goizean, berriz, mountain bike proba ospatu zen 22 kilometro osaturiko zirkuitu baten inguruan. Proba hau burutzera ere kirolari

talde handia hurbildu zen, guztira herriko enparantzan kokatu zen irteeratik 100 txirrindulari inguruko taldea atera zelarik. Probaren amaieran Kemen kirolak, Itxune erretegiak eta Beasaingo Jokin kirolakek emandako sarien zozketa egin zen.

Aurtengo San Migel jaiei amaiera musika doinu eman zitzaion, hain zuzen Ormaiztegi kirol taldeko partaideek herriko kaleetan zehar pasakaile bikaina eskaini baitzuten. Ondoren herriko

trikitilarien txanda izan zen.

Kutxaren erreketak

Irailaren 26ko gauerdian Kutxaren bulegoa erasotua izan zen. Barrura koktela bota eta su eman zioten. Kutxazainak su hartu zuela ikustearekin batera suhiltzaileei deitu zitzaion. Bitartean goiko bizitzaren lo zeuden herritarrei deitu eta suaren berri eman zieten. Suhiltzaileek suarek berehala itzali bazuten ere, lokalak suaren eragina jasan zuten.

Aitziber Murua

BEASAIN

Odol-emaileen elkartearen martxa onean da

Gipuzkoako Odol-emaileen elkartearen Beasaingo ordezkariak, azken bi urteetako datuak plazaratu zituen pasa den astean. Hauen arabera, Beasaingoa eskualdeko ordezkari nagusia da, eta 1996an Gipuzkoako 5.a izan zen odol aterazteetan, 1.104rekin (Donostia, Irun, Eibar eta Bergara bakarrik daude aurretik). Aurtengo datuei begira, abuzturarte, 12 ateraldietan 708 ateratze egin dira. Iaz, epe berean, 706 izan ziren.

Dena den, odola beti da beharrezko. Eta momentuan behar berezirik ez izan arren, hurrengo deialdia luzatu nahi dute ordezkariak. "Odol-emaile fidel ugari ditugu herrian, baina berriei egin nahi genieke. Eta batez ere gaztediari, egin ditugun azken deialdietan guk espero baino gutxiago erantzun baitute".

Odola emateko baldintza bakarrak, 18-65 urte bitartean izatea, pisu minimo bat izan eta tentsio arazorik ez izatea dira. Aldiko 450 mililitro ateratzen dira, bizpahirutan urtean. "Inongo arriskurik ez da, prozesu guztia kontrolatzen medikuak baitaude. Iatekotan, osasunerako ona da. Izan ere, odolaren zati bat analizatu egiten eta, eta honela emaileak izan dezakeen edozein arazo aurkitzen da, sendaketa erraztuz".

Beasaingo odol-emaileen delegazioko junta, musutruk lan egiten duen 13 kidek osatzen dute. Eta sortzen diren gastuen finantzaketa,



Udal eta erakundeetako subentzio eta diru-laguntza pribatu bidez egiten dute.

Egoitza, 1988tik, Urbi-Etxeko udal lokal batean dute. Eta aipatu, pasa den asteetik lokal hori handitzen ari direla. Azpiko lokala gehituko diote, bertan txiki gertatzen ari zen itxarongela kokatuz. Urte berrirako prest egon liteke aldaketa hau.

Bukatzeke, odola ematean interesaturik zaudetenak, Urbi-Etxeko lokal honetatik pasa zaitezke, edo bertara deitu: 88 03 10. Astelehen, astearte eta asteazken arratsaldetan, 6.30etatik 8.00etara bertan izango dituzue juntako kideak. Edota bestela, hurrengo odol ateratzera azaldu zuzenean; lokalean bertan izango da hau, datorren irailaren 21ean. Eta beste goierritarrok honelako asmorik bazenute, zuen herrian duzuen odol-emaileen delegaziora jotzea besterik ez duzue.

Asmubeko kurtsoak

Emakumeen elkarte (Asmube) ikastaro ugari antolatzen ari da urtean zehar. Urrian, besteak beste, ondorengoak izango dira. Astelehen eta ostiralean goizeko 10.00etatik 11.00etara: gimnasia, erlaxaketa eta joga.

Astelehen arratsaldeetan, 4.00etatik 7.00etara: eskulan ikastaroa. Astearte arratsaldeetan, 5.00etatik 7.00etara, ortografia eta idazketa; eta azkenik, ostiralero, 4.00etatik 7.00etara, adineko pertsonen arreta.

Kurtso hauetan edonork parte hartu lezake. Izena emateko Asmuben egoitzaetik pasatu behar da, Kale Nagusia 40an.

Txanoberritsu

Euskara-batzordeak eta Naturalki enpresak antolatuta, aurtengo ikasturtean ere aisialdiko euskarazko Txanoberritsu ekitaldia izango da. B eta D ereduetan (B eredu batez ere) ikasten duten 5-11 urte bitarteko haurrei zuzenduriko ekintza da hau. Urriaren 18tik ekainerrarte luzatuko da, larunbatean eta 3 orduko bi saioetan, goizez 9.30etatik 12.30etara eta arratsaldeko 3.30etatik 6.30etara.

Izenak emateko epea urriaren 10erartekoa da. Horretarako, lehenik 5.500 pezeta sartu beharko dira Euskadiko Kutxako 3035 0017 18 01700465445 kontuan, eta ondoren Udaletxeko Euskara-zerbitzura jo zieragiri horrekin.

Lagunarteko txapelketa

Asteburu honetan jarriko da martxan XXII. Lagunarteko Futbito txapelketa. Atzo bertan izan zen zozketa, eta urtero bezala talde askok hasita dute maiatzaren 25ean jokatu den finalerako bidea. Baina honen gainetik, aipagarria da berriro ere 400

beasaindar inguru kirolera bultzatuta dituela txapelketa honek.

Antolatzaile lanetan Genoro, Juanjo eta Aporroioek jarraitzen dute; eta aurtengo berrikuntza nabarmena, partiduak Lizeora itzuli litezkeela da. Honela, La Salle eta Loinazpeko patioei, beste eszenatoki bat gehituko zaie ziurrenik.

Udal ikastaroak

Datorren ostiralean, urriak 10, inauguratuko da iazko tailer eta ikastaroetan egin dakopintura eta zeramika lanei osatuko duten erakusketak, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Aurtengoan Urbieta Arte tailerrak jasoko ditu ikastaro hauek. Hurrengo ikastaroak izango dira: antzerkia, marrazkia eta pintura, keramika eta esmaltatua, argazkigintza eta magia. Bihar hasiko dira lanean goiztiarrenak, antzerki tailerrekoak. Interesatuei gogoratu, oraindik garai zabiltzatela izena emateko. Horretarako, Kultur sailera jo (88 50 51).

'Pertsona elbarriekiko

arreta eta mugikortasuna'

Gai horri buruzko ikastaroa antolatu du herriko Sanitate eta Gizarte Ongizate sailak. Ikastaroak 20 ordu iraungo du eta bere ardurapean elbarriaren bat duten pertsonentzako da. Ikastaroa praktikoa izango da, eta gidaliburu bat emango zaio bakoitzari. Udaletxeko Gizarte Ongizate sailean (beheko oinean) eman behar da izena, 2.000 pezeta ordainduta. Ikastaroa Erretiratuen etxean izango da, urriaren 6tik 9ra eta 13tik 16ra.

Aitor Arrue

IDIAZABAL

Iñautitik Gaztelu jatetxera bitarteko errepidea bikoizteko lanak 1998ko urtarrilean hasi eta aurreikuspenak betez gero 1999. urtearen erdialdera bukatuta egongo dira. Urte t'erdiz egindako lan hoiek oraingo bariante edo saihebidetza lau karriletako errepidea bihurtuko dute. 3 kilometroko tarte horretan egin beharreko lanek 1.400 milioiko aurrekontua dute.

Gipuzkoako Diputazioko diputatu batzordeak onartutako proiektuari 35 alegazio egin zaizkio. Hoietakoa bat Idiazabal, Segura, Zegama, Zerain eta Mutiloko udalek aurkeztu dute. Udal hauek bariante berriko proiektuak Segura alderako irteera aurreikusten ez duelako beraien kexua helarazi diote Diputazioari. Diputazioko ordezkariak oraingoz ez diote arazoari konponbiderik eman, hala ere lanak egingen ari diren bitartean irtenbideren bat aurkituko dutela jakinarazi dute.

Errepide berria egin ondoren Foru Aldundiko ingurugiro aholkularitzak, errepidetik gertuen geratuko di-

ren etxe eta eraikinetan hotsak neurtzeko frogak egingo ditu. Trafikoak sorrazitako hotsa legezkoa baino handiagoa bada, hori gutxitzeko neurriak hartuko dituzte.

Etzegarateren bikoizteko bigarren fasea bukatu ondoren, 1999. urtearen erdialdera hasiko dira Gaztelu paretik Altsasuko mugarainoko errepidea bikoizteko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurreikuspenak betetzen badira 2001. urterako Etzegarateko errepidea erabat bikoiztuta egongo da.

Zirika Irratia

Larunbat honetan, urriaren 4ean, hasiko dira Zirika Irratiko saioak. Aurreko urteetan bezala larunbatero eguerdiko ordubatean hasi eta arratsaldeko hirurak arte izango da irratia entzuteko aukera F.M.ko 99,3an.

Ohiko atalekin batera zenbait gauza berri ere eskainiko ditu Zirika Irratiko taldeak. Aurten lehendabizikoz Herri Eskolako ikasleekin elkarlanean atal bat egingo dute. Irratinobela

Bariantearen bikoizketa urtarrilean



Gimnasio berria

Jendea hasi da Kiroldegiko gimnasio berria erabiltzen. Zortzi makina jarri dituzte herritarren zerbitzura. Kiroldegia ordu egian izango da gimnasioa erabiltzeko aukera (astelehentik ostiralera arratsaldeko 17.00etatik 21.00etara eta larunbatean goizeko 9.00etatik arratsaldeko 13.00etara). Horretarako aurrez erreserba egin eta ordua hartu behar da Kiroldegian bertan.

Prezioari dagokionez, bi aukera daude: urte bukaera arteko bonua hartzea (4.500 pezeta) edo 20 saiorako bonua erostea (3.350 pezeta). Kopuru hoiek oradinduta gimnasioa ez zik kiroldegiko beste instalakuntzak erabiltzeko aukera ere badago.

Gimnasiorako ordua hartu edo kiroldegiko kantxa erabiltzeko Kiroldegira bertara joan edo 18 71 18 telefonora deitu dezakezue.

ere berezia izango da, herrian izandako Axari antzerki taldeak antzeztutako 'Itzulera' antzezlanaren irratirako moldatu eta bederatzi ataletan eskainiko dute. Irratinobelaren inguruko lehiaketa ere izango da.

Herri Eskolakoak ere urrian hasiko dituzte beraien saioak. Asteazkenetan eguerdiko 12.30etatik aurrera izango da herriko neska-mutikoen egindako saioak entzuteko aukera.

Xabier Urteaga

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 - 882007 BEASAIN



- ✓ Sukaldeko altzariak
- ✓ Elektragaiak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84
BEASAIN

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxes: 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK

GOIERRITARRA



88 96 12

SEGURA

Lur-jabe kaltetuen eskaria madurako bariantez



Maduraren 65.000 m²ren desjabetzapenak, 151 lur saili eta 60ren bat lur-jaberi eragingo die.

Madurako lur-jabe kaltetuek, idatzi bateratua adostu dute bariante honi ezezko borobila emanez. Bertan, ondorengo balorazioa eta eskaria egin diote Udalari:

Balorazioak:

1.-Barianteak ez ditu herritarren trafiko arazoak orotara konpontzen, beste herrietako jendearenak baizik. **2.-Madurako bariantea** eta kaskorako plan berezian azaltzen den zerkaldekotrabesia, biak onartzeak, ez du zentzurik, herriarentzat aurrakusten den etorkizunarekin. **3.-Bariante** honek herriaren garapena hipoteka dezake.

Eskariak:

1.-Saihesbideak izango lukeen trafiko dentsitatea neuritzea. **2.-Eusko Jaurlaritzari** barianteak ingurugiroan edukiko duen eraginaren azterketa sakona eta zehatza eskatu. **3.-Herria** zabal informatzea eta herritarren iritzia jasotzea. **4.-Bariantearen** eta Axkueta aldeko zerkaldekotrabesiaren alde onak eta txarrak aztertzea. **5.-Bitartean**, lurren desjabetze prozesua etetzea.

Kaltetuak, irailaren 29an, Udaleko 3 alderdiekin biletzea eskatu zuten, bakoitzak barianteraen inguruan duen postura jakiteko. EA eta EAJkoak, zerkaldekotrabesiaren bideragarritasuna iku-

si arte ez dutela jarrerarik hartuko esanez, ez ziren kaltetuekin elkartu. HBkoekin bai, hauek, kaskoko plan berezirako kontenplazten den trabesia aprobetxatzea proposatzen dute madurako bariantearen ordez. Hau, bestela ere egin beharko litzatekeela diote eta trafikoari irtenbidea emateaz gain, plan berezian markatutako lana handi bat aurreratuko litzateke.

Bi aukerak konparatu ahal izateko, Udalak zerkaldekotrabesiaren kostearen kalkulua egiteko eskatu dio bertako arkitektoari.

Alegazioak egiteko epea 15 egun bakarrik atzeratu da eta azken eguna urriaren 18a izango da. Epea motza dela ikusirik, kaltetuen ordezkaritza batek jarraipena egingo dio honi guztiari.

Euskal jaiak

Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak antolatuta, Antoine Abbadia, zientzilari, euskaltzalea eta euskal jaien bultzatzailea hil zeneko mendeurrena ospatuz, berari buruzko batzarra burutu dute Hendaian. Amaiera ekitaldia irailaren 28an izan zen Saran eta bertara euskal jaiak ospatu dituzten 43 herrietako alkateak gonbidatu zituzten. Horien artean, Segura, 1911ko irailean euskal jaiak izan zituen.

Hitzaldiak adinekoentzat

Jubilatuak elkarteak antolatuta, urriaren 14an eta 16an, zahartzaroko gaixotasunei buruzko hitzaldiak izango dira, Kultur Etxean, 20:00etan. Hitzlaria: Julian Bereziartua sendagile azpeitiarra. Bestalde, irailaren 18an Donostian izango den herrialde mailako jubilatuen egunerako 14 gonbidapen pasa dizkiete segurarrei.

Pelota

Xabier Imazek Olaizolarekin batera Logroñoko San Mateoetako 2. mailako txapelketa irabazi zuen, Barberito VI.-Balerdi bikoteari 22-14 irabazita.

Gipuzkoako Kluben Artekoea: Egoitz Berasategik eta Ibon Etxeberriak Altzako boskotarren kontra jokatu dute urriaren 4an, 12:00etan. Aurrez, herriko mutikoen artekoa: Jon Agirre-Asier Izeita, Mikel Garziandia-Gorka Gerrikoren aurka.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Segura 1-4 Orioko. **Jubenilak:** Beasain 1-1 Segura. **Kadeteak:** Elgoibar 1-2 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 5-0 Aloña Mendi.

Asteburuan etxean: Juubenilak: Segura-Urola, zapatuan, 16:30etan.

Labur labur

● **Gipuzkoako bakarkako bola txapelketako** 2 saioen ondorengo sailkapen orokorrean, Antonio Agirre 3. geratu zen (88 birla). Irailaren 21ekoan, Ereñozun, 3. geratu zen Xepeño Agirre eta 28koan, Gabirian. Antonio Agirrek 3. egin zuen.

● **Elizako argi-armiarmari** argi-instalazioa berritu zaio, garbitu ere egin da eta igo eta jaitsi egiteko mekanismoa hobetu ere bai.

● Irailaren 29an hasi zen **Euskal girotze barnetegiko** lehen taldea Aterpetxean. Berogailua jartzeko obrak dirrela eta, beranduago hasi dira. Iazko modura, astebeteko txandatan egongo dira Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako haurrak ekainera arte. Helburua, euskaraz bizi izaten laguntzea da. Lehentasuna, iaz pasa gabekoek eta gune erdaldunetakoek izango dute.

● **Kilometroak eta Nafarroa Oinezarako** autobusak antolatuko ditu Elorri K.E.ak. Autobus txartelak Elorripen jarriko dira salgai.

Joseba Telleria



Igerilekua itxi arren, iraileko eguraldi onak eta Oria ibaiaren egoera hobeak eraginda, hainbat gazte herritar ia arratsaldero ibili dira Armaolako presan bainatzen.

ATAUN

Kerejeta-eneari agur

Pasatu berria den hilaren erdialdera betirako itxi zen Kerejeta-enea janaridenda. Gertakizun honek horrenbeste merezi zuelakoan, bertako anaietako batekin, Jose Luis Kerejetarekin hitz-aspertu hau izan genuen.

G.- Irailaren 14an ireki zenuten azkenekoz denda. Zergatik?

J.L.- Urteak aurrera doaz eta... 12-13rekin hasi nintzen eta azken 50 urteetan (1947tik 1997ra) gutxi gorabehera dendari izan naiz.

G.- Ixtea beste erremediorik ez al zegoen? Ez al duzue pentsatu beste norbaiti alkilerrean edo uztea?

J.L.- Eskatu izan digute, baina guretzat behar dugu lekua. Gainera, alkilerrean hartzeko ez zait iruditzen errentagarria denik. Denda norberarena izanda, hor nonbait... Baina jabe ez bazara eta alkilerrean ordaindu behar baduzu...

G.- Herriko denda zaharrenetakoa omen zen zuena; noizkoa?

J.L.- Gutxienez mende haserakoa edo. Aurretik hemen bertan barberia eta zapateria bat egon ziren. Geroago, gure aitona ardoa saltzen jarri zuen... 1918. urtearen bueltan erre ere egin zen. Janaridenda bezala, berriz, gure ama zenak ireki zuen gu hazitakoan.

G.- Orain uzteak ez al dituz penarik ematen?

J.L.- Zerbait bai, tradizio eta ohitura bat uztea da eta. Baina guk bete dugu gure etapa, 50 urtetako etapa.

G.- Zer saltzen da horrelako denda batean?



J.L.- Gure aitona gaur, ardoa edukitzen genuen barriketan; gero, janaridenda jartzean, olio 50 litrotako bidoietan... Denetik eduki behar da, ahal den guztia, herritarren edozein beharri erantzuteko ahal bada.

G.- Herritarrak aipatu dituzu. Bezero edo kliente aldetik, fijoerik eduki al duzue?

J.L.- Lehen bai; asto, zaldi eta mandoetan ardorara etortzen ziren haiek. Barriketako ardoz botak bete eta animalien gainean kargatuta eramaten zuten.

G.- Ze alde dago lehenetik orain?

J.L.- Gaur egun ardorik ez dugu barriketan saltzen, ezta olio 50 litrotako bidoietatik litro inguruko ontzietara ateratzen... Higiene eta sanidade aldetik, lehen baino hobeto gaude orain. Gainera, bada hutsune bat ere: Ataunek ezagutu izan ditu 3.000 biztanletik gora. Gaur, berriz, 1.500 inguru gara. Hori gutxi balitz, gero eta kotxe gehiago ditugu kanpora joateko erosketak egitera. Pentsa, 1960. urte inguruan 30en bat negozio egongo ziren Atan, panaderiak, tabernak, janaridenda... Txokolatea eta turroia egiten zuenik ere

bazen eta! Eta gaur egun, zenbat gelditzen zaizkigu bada?

G.- Gogoratuko al ditugu negozio horietako batzuk adibide bezala?

J.L.- Txominone, Sindikatoa, Petrane, Emeteriane, Kooperatiba, Alimentaciones Patxi, Estankoa, Santione, Rafalene, Mantxitone, Artzane, Kaietanone, Denda Berri, Kaxeta, Ezkurdia-tegi... Ogia eta irina saltzen zutenak: Errota Zahar eta Errota Berri, Arzubi, Barriola, Miel...

G.- Eta gero, asko eta asko itxi. Zergatik?

J.L.- Batzuk denda utzi eta inguruko fabriketan hasi ziren lanean... Urteak pasatu ahala herritar gutxiago eta kotxe gehiago izateak ere badu bere errua: lehen 3.000 biztanle ginen eta herrian gastatzen genuen.

G.- Gaur egun, berriz, kanpoan. Hala ere, premiarik badugu zuena bezalako herriko dendera joaten gara zerbaiten bila edo eske... eta ezorduetan, gainera.

J.L.- Horrela gertatzen da, bai. Orduz kanpo makina bati atenditutakoak gara, badakizu, faborea egiteko eta klienteari eusteko. Ordu asko sartzen da (goizean goizetik) eta beti pendiente

egon behar duzu, beti prest. Eta hala ere, autoa hartu eta kanpora joateko erosketak egitera!

G.- Izan ere, inguruan ditugun supermerkatu horien aurrean ezer gutxi egin daiteke.

J.L.- Jakina, denda txikia jaten du. Horien promozio eta ofertei ezin zaie aurre egin.

G.- Hortaz, gaur egun Ataun bezalako herri txiki batek denda txikiei bizitzeko edo irauteko adina ematen al die? Herrian zeuden negozioak piskanaka ixten joan dira eta berriak nekez irekitzen dira... Nola ikusten duzu egoera hau?

J.L.- Daudenak mantenduko direla uste dut etxekoek lan egiten dutelako; baina noiz arte ez dakit. Berriak irekitzea zaila dela pentsatzen dut. Norberak dominatu behar du denda eta ez alde-rantziz: etxekoena izan eta denda jartzerakoan zorrik ez egin. Horrela bada, gaur saltzen ez dena hurrengo egunean salduko da.

Josune Aldabe

Labur-labur

● Urriaren lehen egunarekin batera hasi da mantentzeko soinketa ikasturtea San Martingo Auzoeta udal kiroldegian. Gogoratu astean hirutan izango dela arratsaldeko 6.00etatik aurrera; astelehenean eta ostiralean.

● Heriotza baten berri: Patxi Goena Irastorza, Suki Aundi baserrikoa hil zen joan zen astean. Bere sendiarekin bat egiten dugu euren nahigabea.

GABIRIA

Motxorroko errepidea konpontzeko erabakia

Gipuzkoako Foru Aldundi-ko diputatuen kontseiluak irailaren 2ko bileran Arrondonetik Motxorron zehar Legazpira doan Kamino Zaharreko errepidea konpontzeko erabakia hartu du. Asfaltatu gabe dagoen errepide zatia hiru kilometro ingurukoa da eta proiektatutako lanen artean egungo zorua sendotzea, errepidea asfaltatzea, behar den lekuan ura bideratzea eta erretenak egitea leudeke.

Erabaki honen ondorioz, errepidearen konpontzea kontrata bidez egingo da

eta aurrekontua 78 milioikoa izango da. Bi urtetan ordainduko dira lanak, lehenengo urtean, hau da, 1997an 20 milioi eta 1998an 78 milioi.

Errepidea konpontzearen helburu nagusia badiardi Ormaiztegitik Zumarragarako errepidea zenbait unetan zertxobait arintzea litzatekeela.

Herriko bizilagunik zaharrenaren heriotza

Joan den irailaren 15ean hil zitzaigun herriko bizilagunik zaharrena genuen Irubi-

deko Maria. 91 urte ondo beteta zituen eta azken urte hauetan nahiko motel ibili ondoren agur esan digu betiko astelehen goiz batean. Gure doluminik sentikorre-na senitartekoei.

Inazio Ugarteburu txapeldun

Irailaren 28an jokatu zen Korta jatetxeko bolatokia Gipuzkoako banakako bola txapelketako finala eta aurrez Ereñozun lortutako puntuak eta egun horretakoak batu ondoren Inazio Ugarteburu izan dugu txapeldun 89 punturekin.

Urriaren 4an Osinalde bola txapelketa

Larunbat honetan, hilak 4, jokatu da herriko bolatokia Osinalde elkarteak antolatatu ohi duen bola txapelketa. Ordutegiari dagokionez izena eman nahi dutenek arratsaldeko 4.30etatik 6.00ak arte eman ahal izango dute. Sariak lehenengo bost irabazleentzat, herriko hiru lehenengoentzat eta lehenengo hiru gazteentzat izango dira.

Gabino Murua

LEGORRETA

Gitarra

jotzen ikasteko aukera

Udaleko Kultura-batzordeak bilera bat antolatu zuen irailaren 22an gitarra jotzen ikasteko gogo zuen edonorentzat. Dirudienek ekimenak dextenteko interesa sortu du herritarren artean eta hamabosten bat lagun gitarrari gogor astintzeko gogo biziz agertu dira. Klaseak Alegiko Andonik emango ditu Kultur Etxean.

Apaiz berria

Xabier Azkoitia apaizak gure artean 7 urte eman ondoren, Bergararako bidea hartu du bertako apaiza izendatu ondoren. Bere ordezkia izango den Daniel Eskisabel irailaren 4ko Meza Nagusian aurkeztu zuten Legorretako apaiz berria bezala. Honen eto-

rrera dela eta, Erretore Etxeak egokipen lan batzuk jasan ditu.

Jubilatuen urteroko festa

Urriaren 5ean ospatuko dute herriko jubilatuek eta pentsionistek urtero antolatatu ohi duten festa. Herriko frontoian eta trikitixaren doinuak alaiturik, bazkari ederra dastatzeko aukera izango dute. Oraindik izango da bai herriko zaharren artean makina bat gazteri dantzari irabaziko liokenik, sasoiaren daudenek demostrazio txiki bat egin beharko dute. Ondo-ondo pasa.

Josune Amondarain

ZEGAMA

Euskal

dantza ikasteko aukera musika-eskolaren eskutik

Datorren urriaren 8an eta 9an, arratsaldeko 6.00etatik 7.30ak bitartean jasoko dira matrikula orriak beteta Kultur Etxean.

Aukera hau jadanik Tobera musika-eskolan matrikulatuta dauden haurrez gain, herritar guztiei irekita dago. Dantzako klaseen kostua hilean 1.700 pezeta inguru izango da.

Jubilatuen eguna

Datorren urriaren 12an ospatuko da aurten herriko Jubilatuen eguna. Egun horretako egitaraua jubilatutako guztiek etxean jasoko dute ondorengo egunetan.

Ehiztarientzat oharra

Urriaren 12tik aurrera oilagorretako ehiza irekiko da Partzuergoan. Bertan ari zeko beharrezkoa da txartela Udaletxean jasotzea. Txartel hau lortzeko baldintza Zegaman erroldatua egotea da.

Edurne Albizu

ORDIZIA

Plangintza arau subsidiarioak aurkeztuta



Datozen 10 urtetan herriko lurak nola geratuko diren ikusteko aukera dago egunotan Barrena Kultur Etxean. Beno, nola geratuko diren ez baina arkitektu batzuk nola geratzea nahi duten bai. Izan ere, urriaren 21a bitartean jendaurreko erakustaldia izango da herriarren iradokizunak jakin asmoz. Ondoren, hauek bildu eta erabateko plana egingo du Udal Plenuak Foru Aldundira bidaltzeko. Behin-betiko onarpena honen emango du.

Gauzak honela, hemen-dik 10 urtera herrian 2.000 pertsona gehiago biziko garrelakoaren ustetan, etxebizitza berriak iragartzen dira. Badakigu denok, ordea, Or-

dizia hedadura gutxiko herria izaki, ez daukala erakuntza berriak burutzeko leku gehiegirik. Santi Peñalba arkitektuak egindako planaren arabera, aldakuntzarik handienak San Bartolome auzoan, San Juanen, Txakurtxulo eta Apellaniz bitartean eta Alkarten izango lirateke.

San Juan auzoko urbanizazio lanak hasiak daude dagoeneko. Nekazal lurak zirenak etxebizitza berriak egiteko erabiliko dituzte. Hemen Sanperio kalean azkenak egin zituzten etxeen antzekoak eraikitze asmoa dago, auzo hau herriarekin lotuago geratuko delarik. Altamira eta Usunbilla aldean ere modu honetako

etxeak eraikitze asmoa badago.

Baina dudarik gabe aldatetarik handienak San Bartolome auzoak jasango litzuke. Aipatu genizuen aspaldi batean Feri-Gune Berriaren nondik norakoak. Aurrera ateraz gero, inguru hau erabat itxuraldaturik geratuko litzateke. Rugby-zelaiaren ordeaz Eroskik merkatal-gune handia irekiko luke, aparkamenduak egingo lirateke orain Eroski dagoen horretan, trenbidea lekuz aldatzeko asmoa dago eta hiri-gunearekiko loturak hobetzeko zubiak egingo dira Oria ibai gainetik. Trenbidea N-1a ingurura eramanez gero, honek utzitako lekuan etxebizitzan egingo lirateke.

Etxebizitzaz gain industri-gune berria ere aurreikusten da. Hau Alkarte deritzon gunean joango litzateke. Honetarako Aramarekin hitzegin beharko litzateke aurrena, ordea, honela 10 hektarea izango dituen gunea lortzeko asmoz.

Txakurtxulotik Apellaniz tailerretarainoko tarte

hori bota eta etxebizitza berriak joango lirateke hor. Oso urrutikoa den proiektu bat ere antzeman daiteke Barrenan ipinita dagoen erakusketan. Berau Bus-tuntza auzoa Filipinetarekin zubi bitartez elkartzeko proiektua da. Nafarroako Etorbideari jarraituz egun garaialde Enea dagoen horretaraino arteko zubia joango litzateke Oria gainetik.

Santi Peñalba arkitektuak egindako aurkezpenean garbi utzi zuen, proiektu guzti honen helburua ez dela Ordizia zerbitzu-gune handia izaten jarraitzeko asmoa besterik. Hiri-gunea erabat bihurtuko litzateke oinezkoentzat eta bertaratzeko bideak erabat berrituta geratuko lirateke.

Honenbestez jakin dezazuela herriak hurrengo urteetan zein itxura izango duen zuek eskuetan dagoela. Honetarako Barrenara inguratu besterik ez duzue eta zuek iradokizunak utzi bertan.

Aitor Calvillo




88 55 00 ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



X ENKEGI
ETXE-AROKINTZA

Diseinuak neurritan
Larunbat arratsaldean irekita

Erakusketako eta faxa: 889113 - mugikorra: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

BEASAIN

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

GESTORIA BIOK

ASEGURUOK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

88 44 00 - 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

Nazioarteko sega txapelketa Zaldibian urriaren 5ean

Austria, Suiza, Baviera, Tirol eta Zaldibiako segalariek Zaldibiako lgo txapelketa jokatu dute, urriaren 5ean, Santa Fe bezperan, eguerdiko 12.00etan. 3 urtez izan dira zaldibitarrek Alemanian sega txapelketan, eta aurten, Zaldibian antolatzea erabaki dute, maila apalagoan bada ere.

30en bat segalarik hartuko dute parte txapelketa honetan. Austria, Suiza, Baviera eta Tiroletik 16 lehiakide etorriko dira. Lehiaketa ez da Euskal Herrian ohi den bezala, kiloka neurtuko. Denbora eta nola ebaki den hartuko dira kontuan; hau da, lehiakideek, azkar eta ondo bete beharko dute euren lana. Mikel Jauregi 'Altzo' antolatzaileetarik batek azaldu digunez, "azkar moztu behar da, baina ondo, penalizazioak egoten baitira gero. Formula berezi batekin, penalizazioak



Ezkerrean aurten Alemanian izan den txapelketa, bertan eskubiko austriarra izan zen azkarrena.



denbora bilatzen dira, denbora osoa emanez. Beraz, ondo eta azkar".

Launakako taldeak eta Launako txandak egingo dira. Herrialde bakoitzeko segalariek bere saila ebaki behar du. Emakumezkoek hasiko dute lehiaketa, 40 bat m² ko saila ebaki beharko dute; gizonezkoek, berriz, 144 m² a. Bi lehiaketak bukatutakoan Zaldibiako segalari bat eta atzerriar bat, Euskal Herriko modalitatean lehiatuko dira, pisura hain zuzen ere. Azken batean, ohiturak eta teknikak elkar-trukatu nahi dira.

Zaldibitarrek aprobeitza-

tu dute Alemaniako egonaldia. Sega berriak ekarri dituzte handik: meheagoak eta luzeagoak. Kertenak ere moldatu egin dituzte gutxiago makurtzeagatik. "Handiagoak dira, baina hemengoak baino arinagoak", dio Altzok.

Arkaka bidean dauden Ola, Olakoerrika eta Gostingo baserrietako zelaian izango da lehia, eguerdiko 12.00etan. Aurretik, 11.30etan, herriko plazatik zelaian desfile txiki bat egingo da, herrialde bakoitzeko ezaugarriak erakutsiz, Zubietako Zantantzaren laguntzaz.

Azken urteetan Zaldibitik Alemania aldera segan egitera joan izanak, herrian, batez ere gazteen artean, segarako zaletasuna piztu du. Datorren urtean Oihan Beltzera joateko plana ere eginga dute.

Segaz gain, ordea, izango da besterik. Hemengo eta hango trikitixarekin nahikoa dantza izateko aukera izango da. Suizako kantore bat ere etorriko da. Hau guztia, urriaren 4an, iluntzeko 8.00ak aldera izango da. Segalari askok gainera, sekula ikusi ez duten gauza bat ikusteko aukera izango dute: itsasoa.



JOXEPANE
HERRI OSTATUA

Jaiak ospatu
Ostatuko janaria dastatu

☎ 88 20 47
Albu Etxea

ZALDIBIA

Bilore



Tel. 88 18 00 - Faxe: 88 90 12
Elbarrena Auzoa z/g.
20247 Zaldibia
(Gipuzkoa)



1980ko segurarrak

1980an jaiotako segurarren argazkia da honakoa, nahiz eta gaztexeagoren bat ere beste tartean egon.

Zutik, ezkerretik eskubira: Urtzi Intxausti, Alex Rekondo, Agurtzane Agirre, Ixiar Elortza, Naroa Izagierre eta Leire Luzuriaga.

Makurtuta: Joseba Larrarte, Olalla Manso, Etor Telleria, Itziar Intxausti, Julen Legorburu, Nerea Imaz eta Uxue Arostegi.

GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



✕ 97-98 IKASTURTEA

- WINDOWS 95
- WORD
- EXCEL
- AUTOCAD
- INTERNET


Ikasle bakoitzeko ordenadore bat
Talde txikiak: 5 pertsona gehienez
Plaza mugatuak

✕ Ordenadore muntaia eta salmenta

Joan Iturralde, 1

☎ 88 79 14 - 16 04 01

BEASAIN



**TXINDOKI
TABERNA**



✕ Pintxo bereziak

✕ Ogitartekoak

✕ Plater konbinatuak



✕ Eguneroko menua

✕ Karta

✕ Ospakizunetarako
menu bereziak

☎ 88 40 49

Etxezarreta, 3

ORDIZIA

urte
urte
na

*Urriaren
11a arte*

PRYCA

**GOIERRI
MERKATARITZA ZENTROAK**